2009ko maiatza

82. zenbakia

aikor!

txoriterriko aldizkaria

LITERATURIA

LARRABETZU, LITERATURAREN URIA

Garazi Rodríguez – Zamudio eta Sondikako jaiak – Antzerki eskola – Ibilaldia 2009

AURTENETXE, SA.

Nekazaritza eta lorezaintzarako tresneria saldu eta konpontzen dugu

Eskaintzak, belarra eskuz mozteko makinetan

Aukerako tresneria

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 67 66
Faxa: 94 455 65 66

Sogeon Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Autonomia, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Ixone Zubieta, Jabier Lekerika, Oihana Astobieta, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Gotzon Barandiaran, Amaia Bustinza, Joan Ander Rola eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portada: Aritz Albaizar

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

diruz lagundutako aldizkaria

14 Antzerki eskola

18 Zamudioko jaiak

12 Garazi Rodríguez

28 Sondikako jaiak

34 Ibilaldia 2009

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Laburrak eta albisteak **12**Gaztea eta... Garazi Rodríguez **14**Antzerki eskola, Derion **16**Publierreportajea **18**Zamudioko jaiak **28**Sondikako jaiak 3**2**Euskal Astea, Lagatzuk antolatuta **34**Afaria Larrabetzun, eskolako jantokiaren alde **36**Gazteentzako aisialdia aztergai, Lezaman **38**Ibilaldia'09 **40**Txorierri ezagutu **41**Teknologia **42**Musika **43**Antxinako argazkia **44**Sukaldaritza **45**Denborapasa **46**Agenda

25 zubi

JABIER LEKERIKA
(Txorierri Politeknikako irakaslea)

Ia 30 urte izango dira Lezamatik Zaldibarrera bizi izatera joan nintzela. Derioko Politeknikoan jarraitzen dut lanean, eta egunero 80 kilometrotik gora egiten ditut. Egunero ordubetetik gora ematen dut bidean: goizean, albisteak irratian entzunez eta egunean egin beharreko lanak buruan bueltaka; arratsaldean, eguneko oroitzapenak lagun, pozik etxerantz, etxeko beroaren bila.

Egun batean, beste gauza batzuk ahazteko asmoz-edo, etxerako bidean dauden zubiak kontatzea pentsatu nuen. Eta nahiko harritu nintzen, izan ere, egunero-egunero, eta konturatu gabe, 25 zubitatik pasatzen naiz; eta bueltan, beste hainbeste.

Urte batzuk atzera jo eta egunero egiten dudan ibilbideak urte hauetan zenbat aldaketa jasan duen pentsatu dut. Ia konturatu gabe, eta poliki-poliki, hainbat aldaketa jaso dugu gure inguruan, eta, nire ustez behintzat, onerako izan dira.

Erletxetik Txorierrira etortzeko, Larrabetzuko hirigunetik pasatu beharra zegoen lehen, eta Sarrikolan, Lezamarako zuzeneko bidea zabaltzea oso aurrerapen inportantea izan da, Larrabetzutik nahitaez pasatu behar izatea ekidin baitu. Geroago, Zornotza bihurtu zen eguneroko bidegurutze eta joan-etorriak amaigabeak ziren egunero-egunero. Zorionak saihesbidea egin eta arazoak bukatu zirela. Azken urteetan, eta Txorierriko lantegien ugaritzearen ondorioz, ordu erdia egin behar zen, Lezamatik eta Zamudiotik pasatzeko, auto-ilarak gero eta handiagoak izaten zireneta. Txorierriko korridoreak herriei eman dien lasaitasuna denok ezagutzen dugu.

Denbora bizkor doa, eta ia konturatu barik zenbait zubi eta tunel agertu zaizkigu bideetan, perretxikoen modura. Horiek aurrerapena ekarri digute, baina baita hainbat istilu eta auzo-taldeen salaketa ere. Zornotzan, saihesbidearen aurkakoa gogoratzen dut; zenbat lan eta bide-mozketa egin zituzten autopista zabaltzearen alde. Txorierrin ere korridorearen aurkako koordinakundeak izan genituen. Baina bizitza aurrera doa; azkarregi, beharbada. Eta hura moteltzea neurri batean guri egokitu arren, ez dugu larregi egiten. Autoari diogun mendekotasuna ikusi baino ez da egin behar.

> *“Ia konturatu gabe, hainbat aldaketa jaso dugu gure inguruan eta nire ustez, behintzat, onerako izan dira”*

Eta ez dut bukatu nahi azken hausnarketa egin gabe. Beste leku batzuetan ere borrokatu dute ingurumenaren alde: Leitzarango autobidea, Itoizko urtegia, AHT, Supersur... Hala ere, garapena aurrera doa, eta gaur egun egiten diren triskantzak justifikatzea zaila bada ere, denbora izango da testigu. Nik, behintzat, konturatu gabe 25 zubi zeharkatzen ditut egunero.

Bermeon, musika eta kolorea nagusi!

Maiatzaren 17an Dantzari Eguna ospatu zen Bermeon. Egun aproposa benetan, santutegiari begiratuz gero, San Pascual Bailón baita berez egun horri dagokiona.

Benetan egun zoragarria izan zen, giro euskaldun atseginean, musika eta kolorea Bermeoko bazter guztietara zabaldu zen. Eguraldia ere ederra kontratatu zuten antolatzaileek.

Milaka lagun batu ginen bertan: batzuk dantzan, beste batzuk ikuskizuna ikusten. Eta zelan ez, ehunka pertsona hori guztia antolatzen, baina dendenak umore onean. Ez da batere erraza izan behar hainbeste jende gobernatzea. Gure taldeak, Lainomendi taldeak, urtero 10 dantza taldek osatutako ekitaldia prestatzeko izaten duen lana gogorra bada ere, ez da ezer bertan egiten denarekin konparatuz gero…

Ekitaldia antolatzeaz gain, dantzak koordinatzen saiatu dira antolatzaileak azken urte hauetan. Talde bakoitzak jatorrizko herrian egiten den dantzen bertsioa erabiltzea planteatu dute, eta horretarako, eguneko lanaz aparte, ikastaroak egin dituzte ikasturtean zehar. Baina, hala ere, batzuek errespetu gutxiz norbere herriko bertsioa mantendu dute.

2009ko Dantzari Eguna joan da. Orain egun horretan bizitako anekdotak gogoratu eta datorren urtekoari begira egotea geratzen zaigu.

Inoiz egon ez zaretenei aholku bakar bat: joan, bizi eta gozatu!

IXONE ZUBIETA
(Laiomendi taldeko dantzaria)



Mintza praktika lantzeko asteburua

Txepetxa Txorierriko AEK euskaltegiak mintza praktika lantzeko asteburua antolatu du maiatzaren 30 eta 31rako. Ekimena euskaltegiko ikasleentzat ez ezik, Berbalagun egitasmoko partaideentzat eta nahi duten guztientzat da. Euskaran murgiltzeko gogoa izatea da antolatzaileek eskatzen duten baldintza bakarra.

Asteburua Azkizu-Getariako aterpe batean emango dute. Zapatuan Zumaia eta Getaria bisitatuko dituzte, eta domekan ibilaldia egingo dute Pagoeta basoan zehar. Horrezaz gainera, hainbat joko eta ekintza ere prestatuko dituzte.

Lagun askok ez dute eskolaz kanpo euskaraz egiteko aukerarik, eta irteeraren helburua da, ohiko ekintza bat egiten duten bitartean, mintzamena lantzea. Era berean, ikasle batzuek ahozko azterketa prestatu behar dute EGA eta hizkuntza-eskakizunak gainditzeko probei begira, eta asteburuak aukera paregabea eskainiko die, euskaraz pentsatu eta mintzatu beharko baitute egun bian. Mintzamena lantzeko ez ezik, Euskal Herriko txokoak ezagutzeko ere baliatuko dute asteburua.

Irtenaldi horretan parte hartu nahi dutenek Txepetxa euskaltegira deitu behar dute (tf.: 94 454 39 67) edo mezu bat bidali helbide elektroniko honetara: *txepetxa@aek.org*. Datorren ikasturterako beste irteera bi antolatzeko asmoa dute Txepetxa euskaltegikoek.

Euskarazko antzerkia

Beste alde batetik, maiatzaren 27an *Jennyren lau arrazoiak* antzezlana eman zen Larrabarri kultura aretoan, arrastiko 7etan. Saioa Txepetxa euskaltegiak antolatu zuen eta Derioko Udalaren laguntza izan zuen horretarako. Ekimen honen bidez, antzerkia bera eta, bereziki, euskarazko antzerkia hurbildu nahi izan diete ikasle eta herritarrei.

Iaz Errioxara egin zuten irtenaldia, beste ekimen batzuen artean

Zaharren V. Jaia

Maiatzaren 23an, Txorierriko Zaharren Jaia egin zen bosgarren aldiz, Larrabetzun. Bostehun lagun inguruk hartu zuten parte, eta ederto pasatu zuten. Kirol apur bat egiteaz gainera, hainbat jardueraz gozatzeko aukera izan zuten: igel-toka, golfa, dianak eta Wii jokoak, esate baterako. Bazkaria pilotalekuan egin zen eta, ostean, erromeria izan zen Lotxo taldearen eskutik. Anfitrioiak Gure Etxeko lagunak izan ziren. Zalantza barik, egun berezia eta polita izan zen eurentzat, elkarteak 25 urte bete baititu aurten.

Txangoa, Bilboko metropolitik

Lezama Bizirik Auzo Elkarteak txangoa antolatu du ekainaren 6rako, eskolako Gurasoen Elkartearen laguntzarekin. Ekimenak Bilboko metropolia, hori osatzen duten herriak eta bertan garatzen dabiltzan proiektuak ezagutzea du helburu.

Goizeko 10etan Lezamatik autoz atera eta Artxandara abiatuko dira. Funikularreko begiratokian lehenengo geldialdia egingo dute. Elkarteko kideek Bilboko metropoliaren ezaugarri nagusiak eta proiektuak azalduko dizkiete parte-hartzaileei: geografia, herriak, portua, Supersurra, aireportua eta korridorea, besteak beste.

Bilbora funikularrez jaitsi eta itsasontzi bat hartuko dute Abandoibarran, itsasadarretik bidaiatxoa egiteko. Azalpenak Iñaki Uriarte arkitektoak emango ditu. Uriarte aditua da hirigintzan eta industria-ondarean. Bidaia Santurtzin amaituko da eta parte-hartzaileek euren kabuz egingo dute itzulera.

Txangoak 15 euro balio du helduentzat, eta 8 euro 18 urtetik beherakoentzat. Izena emateko, telefono hauetara deitu behar da: 650312780 eta 649455579.

"Mirariak" eskatuko dituzte Sondikan

Maiatzaren 25ean "Ostegun miraritsuak" ekimena martxan jarri zuten Sondikan. Ekimena Xelo Bosch eta Cyrille Larpenteur artistek eta CONSONNI arte ekoizpen-etxeak bultzatutako proiektua da eta maiatzaren 31ra arte iraungo du.

Bilboko aireportua Sondikan eraikitzeak, lehenago, eta handik Loiura eramateak, geroago, eragin nabarmena izan zuen herrian. Eta Sondikak nortasuna galdu duen jakiteko, herritarrek galdera honi egin beharko diote aurre: Sondikaren izaera aldatu egin da, edo jakin izan dugu Sondika berria eta gure nortasuna uztartzen?

"Ostegun miraritsuak" proiektua Luis G. Berlangaren *Los jueves, milagro* filmean oinarritzen da, eta sondikarren ilusioak aditzera ematea du helburu. Horretarako, mirari tailerrak egingo dira maiatzaren 31ra arte. Tailerrok herritar guztiei daude zuzenduta eta bertan zelango Sondika nahi duten aztertuko dute parte-hartzaileek, pozik dauden bizi diren herriarekin.

Horrezaz gainera, herritik pote batzuk jarriko dira, sondikarrek euren iradokizunak eta gurariak han utz ditzaten. Poteok ekainaren hasierara arte izango dira leku hauetan: liburutegian, Gaztelekuan, Kultura Etxean, Kultura Aretoa I eta IIan, kiroldegietan eta herriko taberna eta dendetan.

Ekainean herri-paella jana egingo da eta bazkari horretan tailerretan egindako lana aurkeztuko da jendaurrean. Era berean, gurariak batzen jarraituko dute proiektuaren arduradunek. Tailerretan eta poteetan bildutako gurariak urriaren 2an eta 3an emango dira aditzera. Ekitaldi publiko batean ezagutuko dute sondikarrek nolako asmoak dituzten euren herriarentzat, eta nortasuna zenbateraino galdu duten.

Kirola, gero eta hurbilago txorierritarrengandik

Bizkaiko Foru Aldundiak urteak daramatza "Kirolari ateak zabalik" jardunaldia bultzatzen. Ekimen horrek kirola herritarrei hurbiltzea du helburu, eta gizartearen arlo guztietan sustatu. Txorierrik ere bat egin du ekimenarekin, eta ekainaren 14rako hainbat ekintza antolatu dira herrietan.

Sondikan, adibidez, ur-puzgarriak, squash txapelketa eta umeei zuzendutako aerobic maratoia egongo dira Artebe kiroldegian. Era berean, doan sartu ahal izango da igerilekuetara. Ekintzak goizeko 10:30etik aurrera egingo dira.

Derion ere kirol ekintza sorta zabala antolatu dute, herriko talde eta elkarteen laguntzarekin. Besteak beste, hauek edukiko dituzte herrian: xakea, aerobica, bizikletak, futbitoa, two ball-a, pilota eta arku-tiroa.

"Kirolari ateak zabalik" ekimena San Tomas jaien egitarauaren barruan egingo dute aurten Zamudion. Ekintzak goiz-goizetik hasiko dira eta euren artean, hauek aipa ditzakegu: ibilaldia ermitetatik, boloak, igel-toka, petanka eta arku-tiroa.

Xake Nazioarteko Opena, Derion

Derioko Xake Taldeak 'San Isidro' Xake Nazioarteko Opena antolatu du hamaikagarren aldiz. Opena maiatzaren 31n, goizeko 9:30ean, izango da kiroldegian, eta bertan Euskal Herriko xakelaririk onenek ez ezik Estatu eta nazio arteko mailakoek ere hartuko dute parte.

Antolatzailek ahalegin handia egin dute aurten sariak hobetzeko. Horrela, 27 sari emango dira; herriko xakelaririk onenak, beteranorik onena eta 14 urte baino gutxiagoko xakelaririk onena, tartean.

Izena ematea 655 72 79 79 telefono zenbakian egin daiteke, goizeko 9etatik arratsaldeko 4etara eta gaueko 9etatik 10:30era bitartean. Erantzungailuan datu hauek utzi behar dira: izen-abizena, kluba, adina eta ELO. Izena ematea *derioxaketaldea.org* webgune eta *derioxaketaldea @gmail.com* helbide elektronikaren bidez ere egin daiteke, baita lehen aipatutako telefono zenbakira mezu bat aginduta ere. Inskripzioak 15 euro balio du; hala ere, federatuta daudenek 12 euro ordainduko dute, eta izena ematea doan izango da ELO>2300 kategoriakoentzat. Dirua kontu zenbaki honetan sartu behar da: BBK: 2095-0126-20-9101074776.

Txorierri gailendu da harri-zulatzaileen ligan

Harri-zulatzaileen Euskal Herriko XI. Ligaren bigarren proba Ortuellan egin zuten maiatzean. Txorierri taldeak sasoi onean dagoela erakutsi zuen berriro ere, eta txapela ekarri zuen etxera. Txorierritarrek marka hau egin zuten: 19 zulo eta 4 zentimetro. Ligaren lehenengo proba Zierbenan egin zen eta hura ere irabazi zuten gure mutilek: 17 zulo. Ligari hasiera ezin hobea eman diote, eta lehenengo postuan daude ligaren sailkapen zerrendan, 14 puntu dituztela. Bigarren postuan Gallarta dago (12 puntu); eta hirugarrenean, Ortuellako Burdin Gazteak (9 puntu). Hurrengo proba Gallartan izango da ekainaren 6an, arrastiko 5etan.

Lan birziklagarriak sarituko dituzte Sondikan

"Reziklart 2009 Sondika" lehiaketa antolatu du bertako Udalak. Lehiaketak elementu birziklagarriez egindako tresnak edo lan artistikoak saritzea du helburu. Lehiaketan edonork har dezake parte, eta hiru kategoria osatuko dira: 1. kategoria, hiru urtetik zazpi urtera bitartekoentzat; 2. kategoria, zortzi urtetik 12 urtera bitartekoentzat; eta 3. kategoria, 13 urtetik gorakoentzat.

Lanak ekainaren 3ra arte aurkez daitezke Sondikako Kultura Etxean, astelehenetik ostiralera eta 18:00etatik 20:00etara. Lanarekin batera gutun-azal bat aurkeztu beharko da, eta bertan datu hauek zehaztu beharko dira: izen-abizenak, telefonoa, jaiotzedata eta lanaren izenburua.

Orotara hiru sari emango dira: prismatikoak eta 30 euroko kirol-materialerako bonua, 1. kategoriako irabazlearentzat; teleskopio bat eta 50 euroko kirol-materialerako bonua, 2. kategoriakoarentzat; eta erlojua eta 100 euroko kirol-materialerako bonua, 3. kategoriakoarentzat. Originaltasuna, lan edo artikuluaren erabilgarritasuna eta erabilitako elementu birziklagarrien ugaritasuna hartuko dira kontuan, sariak emateko orduan.

Sari-banaketa ekainaren 5ean egingo dute 18:00etan, Goiri Erdikoa plazan.

IRAULTZA TALDEKO JOKALARI BIK OMENALDIA JASO DUTE.– Zortzi Zamudioko jatetxeak omenaldi polita egin die Iraultza futbol taldeko jokalari biri, denboraldian zehar egin duten ahalegina saritzeko. Jokalariak hauek izan dira: Unai Ugarte eta Ruben de Prado. Unaik oso joko erregularra eduki du aurten, eta Ruben gol gehien sartu duen jokalaria izan da. Zortziko arduradunek txapel bana eta trofeo bana eman zizkieten omenduei. Ostean, mokadua eskaini zen.

Maiatzean, Teknika eta PUMSE Euskadiko Txapelketa egin zen Etxebarriko kiroldegian. Txapelketan Euskadiko 12 klubek hartu zuten parte; Doyan Derioko Kluba, haien artean.

Derioko klubak 32 lehiakide eraman zituen txapelketara. Guztien ilusioari eta ahaleginari esker, lehenengo postua lortu zuten taldekako sailkapenean. Neska-mutilak zortzi kategoriatan aritu ziren eta guztira bederatzi domina lortu zituzten: urrezko hiru domina, zilarrezko hiru domina eta brontzezko hiru domina. "Lorpen handia da: 25 urteren buruan lehenengoz lortu dugu lehenengo postua". Lander Lópezek, Aitor Merodiok eta Kerman Arranzek urrezko medaila bana eskuratu zuten; Liher Martinezek, Sofia Rodriguezek eta Martin Arranzek, zilarrezko medaila bana; eta Carla Sanchezek, Mikel García eta Iñigo Galanek, brontzezko medaila bana.

Ekainaren 6an Espainiako Txapelketa izango da Torrelavegan, eta han Aitorrek, Kermenek eta Martinek hartuko dute parte. Deriotik autobus bat irtengo da, klubeko neska-mutilek kideak animatu ahal izateko. "Ahaleginak egingo ditugu, medailaren bat etxera ekartzeko".

"LOS PELOTXOS", IRABAZLEAK BERRIRO ERE.– Gainontzeko taldeak aretoan gogotik ibili baziren ere, Los Pelotxos taldeak hirugarren aldiz irabazi dute 'Sondikako Udala' Areto-futbol Txapelketa. Aurten txapelketaren XXI. edizioa egin da.

Los Pelotxos taldeak 6-2 irabazi zion Sondikako Selekzioari, baina oso partidu parekatua izan zela aipatu beharra dago. Hirugarren postua Fhimasa taldeak lortu zuen, zeinak 6-1 irabazi baitzion Birplax taldeari.

Finala ostean garaikurrak eman ziren. Aipatutako taldeek ez ezik jokalari eta talde hauek ere jaso zuten sari bana: Persianas Muñoz, kiroltasuna; Ivan Bernal (Fhimasa), jokalaririk onena; Carlos

Salcedo (Los Pelotxos), golik gehien egin duena: 38, hain zuzen ere; eta Alvaro García (Los Pelotxos), golik gutxien egin dioten atezaina.

San Tomás eta San Zenon, Zamudion

Jaiz beteta datorkigu santutegia. Zamudion, adibidez, San Tomás eta San Zenon ospatuko dituzte. Jai-egitarauak hurrengo lerroetan dituzue:

SAN TOMÁS
Ekainak 12, barikua
18:00: Bolanderak
20:00: Idi probak
22:00: Saiheski jana, urdai tripapekoa eta sardinak
22:30: Erromeria
Ekainak 13, zapatua
14:30: Herri-bazkaria
16:00: XX. Mus txapelketea
17:00: Umeentzako jolasak
18:00: Tortilla txapelketea
21:30: Sari-banaketea
22:00: Erromeria, Nakar taldearekin
22:30: Antzinako jolasak. Ostean, erromeria
Ekainak 14, domeka
09:00: Zamudioko bost ermitatik XIII. ibilaldia. Iñaki Peral II. Memoriala
11:00: Jolasak: igel-toka, bola-jokoa, lokotxak...
12:00: Belar-volleya
12:00: Sukalki eta paella txapelketak
13:00: Mezea
18:00: Dantzen agerraldia. Ostean, paella eta sukalki txapelketen sari-banaketea
19:00: Erromeria, Trikileku taldearekin
Ekainak 15, astelehena
12:00: Mezea

SAN ZENON
Ekainak 23, martitzena
17:30: Txupinazoa
18:00: Aire zabaleko mezea
19:00: Kalejira
20:00: Umeentzako jokoak
21:00: Merienda-afaria
23:00: Briska txapelketea
01:00: Txokolatadea eta azken trakea

Igogailua eraikiko dute Lezamako udaletxean

Administrazio-tramiteak udaletxeko lehenengo solairuan egiten dira Lezaman. Eskailerak solairu horretara igotzeko dagoen bide bakarra dira, eta hori arazo handia da elbarrituentzat edo ezintasun fisikoa duten pertsonentzat. Arazoari konponbidea emateko, igogailua eraikiko da udaletxean. Beharretan 60.000 euro jarriko dira.

Txorierri ere, greban

Gehiengo sindikalak grebara deitu zuen maiatzaren 21ean, eta deialdiak jarraipen zabala eduki zuen Hego Euskal Herrian. Besteak beste, eta sindikatuen arabera, lanuzteak nagusi izan ziren sektore hauetan: industria, merkataritza, garbiketa, toki- eta foru-administrazioak, hezkuntza eta eraikuntza.

Grebak Txorierrin ere eduki zuen eragina, baina jarraipena ezberdina izan zen herrien eta industriguneen arabera. Horrela, Loiu eta Sondikako enpresa gehienek itxi zuten eta Troquenor enpresako langileek kontzentrazioa egin zuten fabrikaren aurrean. Zamudio eta Derioko industriguneetan, berriz, mugimendu handiagoa egon zen; hala ere, enpresa batzuek itxi zuten eta errepideetatik ohiko egunetan baino auto gutxiago ibili ziren. Grebak eragin txikia izan zuen Teknologia Parkean.

Herrietan denetarik egon zen: grebara joan ziren komertzioak eta tabernak, eta pertsiana zabaldu zutenak. Larrabetzun, esate baterako, ia establezimendu guztiek egin zuten bat grebarekin; eta Derion, berriz, normaltasuna izan zen nagusi.



Lezamako elkarteek badute zentro berria

Apirilaren 25ean Uribarri Topalekua inauguratu zuten Lezaman. Hori erabilera askotako eraikina da, eta erantzuna ematen die herriko elkarte eta taldeen beharrizanei. Izan ere, elkarte batzuek udal guneetan izan dute egoitza orain arte, eta beste batzuek ez dute eduki non bildu. Inaugurazio ekitaldian 400 lagun batu ziren; Roman Pomposo Lezamako alkateordea, zinegotziak, Txorierriko ordezkariak eta herritarrak, tartean.

Uribarri Topalekua Garaioltza auzoan dago. Solairu biko eraikina da eta guztira 241 metro karratu ditu. Beheko solairuan Done Jakue bidea egiten duten erromesentzako aterpea egokituko da ekainetik irailera bitartean, eta gainontzeko hilabeetan Lezamako elkarte zein Udalaren ekintzak egiteko erabiliko da. Solairuak 109 metro karratuko azalera du eta aterpe eta erabilera askotarako aretoaz gainera, hauek daude bertan: atondoa, komunak, aldagelak, biltegia, igogailua eta lehenengo solairurako sarbidea. Kanpoaldean lorategia dago.

Bigarren solairua herriko kultura eta kirol elkarteei dago zuzenduta. Ikastaroak edo udal tailerrak ere han emango dira. Solairuak 132 metro karratu ditu eta besteak beste, hauek atondu dituzte bertan: aretoa, aldagelak, komunak eta biltegia. Eraikin modernoa da, eta eguzki-plakak ditu energiaz hornitzeko.

Desadostasuna, herrian

Inaugurazio egunean, Lezama Bizirik Auzo Elkarteko kideak eta lezamar batzuk batu ziren Uribarri Topalekuaren aurrean, eraikinaren zabaltzearekin euren desadostasuna adierazteko. Guztira 35 lagun elkartu ziren. Lezama Bizirik elkartetik jakinarazitakoaren arabera, "elkarteentzako proiektua izan arren, herriko taldeok ez dugu inolako aukerarik izan proiektu horretan parte hartzeko. Ondorioz, guztiz eskasa eta desegokia da elkarteen funtzionamendurako". Horrezaz gainera, azaldu dute herriko elkarte guztiak ez dituztela gonbidatu, ez eraikinaren funtzionamendua zehazteko egin zen bilerara, ez inaugurazio ekitaldira. "Lezama Bizirik Auzo Elkartea eta Oxangoiti Kultur Elkartea berriro ere baztertu dituzte". Proiektua 2007. urtean jarri zen martxan, eta elkartekoek gogorarazi dute Arkitektoen Elkargoak ez zuela hura ontzat eman, hirigintzako arauetara ez baitzen egokitzen, eta horren haritik prozesu judiziala zabaldu dela.

Eraikinak 2007. urtean indarrean zeuden arau subsidiarioetan ezarritakoa baino 40 metro karratu gehiago ditu. Amaia Arteaga bigarren alkateordeak azaldutakoaren arabera, "denbora eta epeekin zerikusia duen arazoa izan da". Proiektua martxan jartzeko aukera sortu zenean, arau subsidiarioak berrikusten zebiltzan, eta aurrera egitea erabaki zuten. "Eraikina gaur egungo hirigintzako arauetara egokitzen da; arau berriak kontuan hartuta, metro karratu gehiago ere eraiki genitzakeen". Beste alde batetik, inauguraziora herriko elkarte guztiak gonbidatu dituztela adierazi du, eta lezamar bakoitzari gonbidapena luzatu diotela. Azkenik, eraikina elkarteek Udalari helarazitako iradokizunak eta beharrizanak kontuan hartuz diseinatu eta atondu dutela azaldu du, "beraz, parte-hartzea izan dute proiektuan".



BERDINEAN ERE, EMON EUSKARAZ

EUSKALDUNAK BEHAR DITUGU

BUSCAMOS PERSONAS EUSKALDUNES

Para el cuidado de personas mayores

Para cuidar niños y niñas

Para clases particulares

Monitoras/es de tiempo libre

Monitoras/es de deporte

Presentadoras/es

Dependientes/as

Camareros/as





Garazi Rodriguez, bideo-munta

“Gustura zine-zuz

Garazik *Kabia* film laburra aurkeztu dau Derion, Topaguneak eta Tximintx euskara taldeak antolatutako film laburren emanaldien barruan. Non eta bere herrian. Hogeita lau urteko derioztarrak produkzino etxe txikia sortu barri dau beste kide batzukaz batera.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Zertaz da *Kabia* (2007)?
Bakartadeaz. Pertsonak perfekzino bila dabilz, baina horrek euren bakartadea handitu baino ez dau egiten, ez dagoalako perfekzinorik. Protagonisteak gizon-haziak erosi eta landatu egiten ditu, gizon perfektuaren bila dabilelako. Baina gauzak ez dira suertetan berak gura dauen moduan, eta hil egiten ditu akabuan, beste bat landatzeko. Gero eta bakartade handiagoan dago.

Zelango harrerea izan dau?
Kabia Derion ez eze Euskal Herriko beste areto batzuetan be emon da, eta, orokorrean, gustau egin jake ikusleei. Beldur ginan ikusleek ez ete eben istorioa ulertuko, baina gehienek ulertu dabe; oso harrera ona euki dau.

Egin dozun lehenengo film laburra izan da?
Film labur hau karrerako laugarren mailan egin dot, beste ikaskide batzukaz, amaierako proiektu moduan. Aurretik beste behar batzuk izan dira: film laburrak, telebistarako saio pilotu bat, mikrodokumental bat...

> *“Zuzendariak oso argi euki behar ditu ideiak; uste dot hobeto moldatuko nintzatekela kamerea erabilten edo edizinoa egiten”*

Karrera barruan egin dodaz; ikus-entzunezkoak ikasi dodaz.

Dirua izaten da film luzeak egiteko; baliabideak askoz eskasagoak izan ohi dira film laburren kasuan.
Jakina. Istorioa landu ostean, kokapenak bilatu behar dira, atrezzoa lortu, castinga egin... Eta dirurik ez dagoenez, irudimenaz baliatu behar dozu: han eta hemen galdetu, behar dituzun gauzak etxetik eroan... edo dirua zeure poltsikotik imini. Behar neketsua da eta denborea eskatzen dau.

Zer da erakartzen zaituana ikus-entzunezkoen mundutik?
Karrerea egiten hasi nintzanean, argi neukan zinean jardungo nebala: gidoilaria izango nintzan, edo zuzendaria... Baina mundu honetan sakontzen dozunean, atal eta gauza asko dagoala konturatzen zara: muntatzea, grabatzea... eta guzti-guztiak dirala oso erakargarriak. Oso mundu erakargarria eta dibertigarria da, nire ustez.

Gustauko litxakizu film luzeak zuzentzea?
Gustauko litxakit, bai, baina presino handiko beharra da. Zuzendariak oso zorrotza izan behar dau eta oso argi euki behar ditu ideiak, eta uste dut ni hobeto moldatuko nintzatekela kamerea erabilten edo edizinoa egiten.

Gatxa da ikus-entzunezkoen munduan sartzea?
Karrerea egiten zabiltzan bitartean, beharra topatzea gatxa dala entzuten dozu, baina, egia esateko, ikaskide gehienek topau dabe beharra. Aukera handiak dituan mundua da, telebisteaz aparte, internetek bide barriak ekarri ditu. Gakoa mobitzea da: beharra topateko, mobidu egin behar





tzailea

egingo neuke behar endariakaz batera”

> *“Internetek bide barriak ekarri ditu ikus-entzunezkoen mundura”*

> *“Jentetza handia ezagutzen nabil, oso proiektu interesgarrietan murgilduta dagoan jentea”*

dozu.

Zertan ibili zara karrerea amaitu zenduanetik?

Saltsa askotan ibili naz: praktikak egin nebazan telebistako produkzino etxe baten; Unibertsitateko bideotekan egin neban behar; kurtso bat egin neban New York Film akademiagaz; *Lostinbilbao* proiektua jarri neban martxan beste lagun batzukaz batera; eta Hamaika Telebistan izan naz. *Lostinbilbao* proiektua kulturaren ganeko webgunea da eta, hari esker, produkzino etxe txiki bat sortzeko aukerea izan dogu. Produkzino etxean nabil buru-belarri gaur egun.

Zein da zuen beharra?

Saio pare bat hasi gara ekoizten ETB3rako; eta hareetako bat emoten dabilz dagoaneko: *Nickdutnik*. Saioa interneti buruzkoa da eta Euskal Herrian garatzen dabilzan proiektuak aurkezten doguz bertan. Ni audioaz arduratzen naz; hau da, adi egon behar dot grabazinoan soinuren bat sartu ete dan. Eta kameralaria ez dagoanean, grabau be egiten dot. Ondoren, neu ibilten naz bideoa muntaten; telebistatik ikusten dana nire beharraren emoitza da.

Aukerarik dozue merkatuan, zure ustez?

Hasi barriak gara eta nahikoa dogu ETB3rako behar egite hutsagaz. Gustauko litxakigu beste telebista kanaletarako be behar egitea, noski, baina goiz da oraindiño. Eskarmentu handiagoa dogunean, baleiteke. Halanda be, jatorkuzan aukera guztiak aprobetxauko doguz.

Zein da onena zure beharretik?

Jentetza handia ezagutzen nabilela, proiektu ezberdinetan eta oso interesgarrietan murgilduta dagoan jentea. Hasi barriak garanez, ordu asko sartu behar izaten doguz beharrean. Baina horrelakoa da bizitzea; emoitza onak izan gura badira, gogor egin behar da behar.

Noraino heltzea gustauko litxakizu?

Zineman behar egitea gustauko litxakit; zuzendariagaz batera behar egitea muntatze lanetan. Edo pelikulak aztertzea: zelan egin diran, zelango ezaugarriak dituen, zein da zuzendariak zabaldu gura dauen mezua...

Eta amets egiten gabilzanez, zein zuzendariagaz?

Clint Eastwood beti gustau jatan aktore eta zuzendaria da. Aktorea zanean, pertsonaia gogorren papera egin dauelako; baina, aldi berean, bihotz onekoak. Eta zuzendari berezitzat dot: errepublikanoa izan arren, filmetan kritika zorrotzak egiten deutsez Estatu Batuetako errepublikanoei; eta ondorioz, bere buruari be bai.

Proiekturik, esku artean?

Gaur egun dogun proiektu bakarra *Nickdutnik* saioa da. Unibertsitateko jenteagaz batera inoiz beste film labur bat egitea pentsau dogu; baina badakizue, bakotxak bere bizitzea eta istorioak ditu.



Kabia film laburraren irudiak

Oihala ireki dute Derion

Maiatzean Derioko I. Antzerki Topaketak izan ziren Txorierri Institutuan. Ekitaldian umeei zuzendutako antzerki eskola aurkeztu zuten Tximintx euskara elkarteak eta Kurkuluxetan Bilboko elkarteak.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Kurkuluxetan

Antzerki Topaketetan Bilboko Antzerki Eskolako hiru ume taldek hartu zuten parte, eta aretoan bildutako Txorierriko umeei eskolan egiten duten lanaren zati bat erakutsi zien: antzezlana. Hala ere, beste zatia ere ezagutu nahi badute, antzerki eskolan izena ematera animatu beharko dira.

Tximitx Derioko euskara elkarteak buruan izan du umeei zuzendutako antzerki tailerra egitea. Kurkuluxetan elkartekoek urteetako eskarmentua dute mundu horretan, eta eurengana jo zuten, proiektua bideratzen laguntzeko. Baina hasieran tailerra zena eskola bihurtzeko bidetik doa. Are gehiago, denboraren poderioz Deriotik Txorierri osora zabal liteke.

Koldo Zelestino Kurkuluxetan elkartearen kidea izateaz gainera antzerki zuzendaria ere bada. Bere esanetan, antzerki eskola sortzea posible da Txorierrin eta edonon. Ikastetxeetan matematikak, naturazientziak eta abarreko ikasgaiak ikasten dira, baina, eta legeak hala esan arren, antzerkiaren bezalako iniziatibarik ez da egiten. Eta egiten bada, irakasleren batek bere kabuz bultzatzea erabaki duelako izan ohi da. Antzerkiko pedagogoek eta adituez, berriz, behin baino gehiagotan azpimarratu dute antzezpena eta dramatizazioa lantzeak umeen garapenerako duen garrantzia. "Lanak antzeztea ez da inportanteena, hainbat atal lantzea baizik: ahotsa, gorputzaren mugimendua, hizkuntza... bizitzan zehar ezinbestekoak izango dituztelako umeek". Bilboko Antzerki Eskola duela bost urte zabaldu bazuten ere, Kurkuluxetan elkarteak bederatzi urte inguru darama antzerki munduan murgilduta. Eskolara "arazotxoak" eduki dituzten umeak hurbildu dira: lotsatiak izan dira batzuk, beste batzuek zailtasunak eduki dituzte hitz egiteko orduan, edo besteekin harremanak izateko... Eta aste gutxitan oso aldaketa eta hobekuntza nabarmenak izan dituzte, gurasoak harritu dituztenak. "Antzerki eta jolas dramatikoen bidez era naturalean ikasten dute beste era batean funtzionatzen. Gure helburua ez da aktoreak lortzea, pertsonak heztea baizik. Antzerki eskola hezkuntza prozesu bat da azken batean, ikastetxean daramatenarekin lotuta dagoena".

Euskarazko bigarren pertsonaia

Aurreko lerroetan aipatutakoaz gainera, antzerki eskolak badu beste helburu nagusi bat: euskara lantzea. Ume askok eskolako hizkuntzatzat dute euskara, eta zaila da euren artean euskaraz egitea lortzea, euskaraz bizi daitezela. Antzerkia bidea ere bada umeek ulertzeko eskolatik kanpo ere ekintzak euskaraz egin ditzake-



tela, euskaraz naturaltasunez bizi daitezkeela.

Gainera, antzerkiak beste diziplina batzuek ematen ez duten aukera eskaintzen du, komunikazioa ez baita inoiz etetzen: gidoiak asmatu behar dira, esketxak prestatu behar dira, inprobisazioa, adierazpenak... Antzerkiaren parte ludikoari bizitzaren beste elementu batzuk gehitzen zaizkio, ondorioz. "Eta horiek gure mundu txikira eramaten ditugu. Haurrak zabaldu egiten dira eta barruan duten bigarren pertsonaia hori ateratzen dute, euskaraz".

Antzerki Eskola urrian martxan jartzeko asmoa dute. Lehen hezkuntzako umeei zuzenduta egongo da, eta eskola astean behin emango da. Ordubete eta erdiko saioa izango da, eta besteak beste, hauek ikasiko dituzte han: clown, mimika, interpretazioa, gidoiak... Lehen esan moduan, gorputzaren adierazpena, ahotsa, harremanak... hobetuko dituzte, eta gatazkak konpontzen ikasi ere egingo dute. "Umeen munduan gertatzen diren eta aurrera begira baliagarriak izango zaizkien gauzak landu eta sakonduko ditugu dramatizazioa erabiliz".

Txorierriko harrobia

Tximintx eta Kurkuluxetan elkartekoek antzerki irakaslea izateko tailerra antolatuko dute ekainean. Koldok azaldu duen moduan, oso inportantea da bertoko protagonistak sortzea eta Txorierriko etorkizuneko eskola horretan aritzen diren irakasleak haztea. "Haurrengandik hurbilago daudelako. Atheticek bezala, geuk ere zaindu behar dugu harrobia".

Txorierri Institutua Derioko I. Antzerki Topaketen eszenatokia izan da. Datorren urtean bigarren edizioa egingo da, eta orduan bertoko umeak ere igoko dira taulara.

"Antzerki eskola hezkuntza prozesu bat da, umeek ikastetxean daramatenarekin lotuta dagoena"

"Eskolan hainbat atal landuko dituzte: ahotsa, gorputzaren mugimendua, hizkuntza..."

Behargintza Txorierriko zerbitzu berria

Laguntza soziolaborala, lanbidea hobetu nahi duten pertsonentzat

Behargintza Txorierrik zerbitzu berria jarri du abian, lanbidea hobetu nahi duten pertsonei laguntza emateko. Zerbitzu hori oraingo egoera ekonomikoak bultzaturik eskaini du.

Zerbitzuak ezaugarri hauek ditu: aholkularitza eta laguntza pertsonala ematen ditu, eta alde soziala eta pertsonala hartzen ditu kontuan. Gai pertsonalez aritzea borondatezkoa da. Pertsonek tratu hurbila jasotzen dutenean, gai horiei buruz hitz egitera animatzen dira, eta gogo-aldartea eta autoestimua hobetzen laguntzen zaie. Horrela, pertsona desblokeatu egiten da eta bizi-bizi hasten da lan bila. "Alde soziala izan dugu lehentasuntzat hasieratik. Alde hori bultzatu eta ezagutarazi nahi dugu", azaldu du Argiñe Ugarte zerbitzuaren arduradunak. Zerbitzua otsailean ireki zuten eta harrezkero 186 lagunek jaso dute arreta. "Jende asko Lanbidetik datorkigu, gaur egungo enplegu-zerbitzuaren osagarria baita eta arreta pertsonalizatuagoa ematen baitugu".

Erabiltzaileen profila

Zerbitzu honetara jotzen dutenen profila hau da: nagusiak, 30 urtetik gorakoak, gizonak gehienbat. Euren burua internetetik kanpo ikusten duten belaunaldietakoak dira, eta askotan ez dute lana bilatzeko beharrizanik izan. Esperientzia nahikoa dute eta, lana bilatu behar izan dutenean, erraz aurkitu dute ohiko zerbitzuen edo inguru hurbilaren bidez. Hori dela eta, ez dute enplegua bilatzeko ohiturarik izaten. Arreta txorierritarrei ez ezik beste eskualde batzuetako herritarrei ere ematen zaie.

Ugarteren esanetan, "garai latzak dira, eta orain inoiz baino ahalegin handiagoak egin behar dira lana topatzeko; baita inoiz baino gogo handiagoa izan ere". Lagun batzuek egunero jotzen dute Behargintzara lan bila. "Baina zoritxarrez, batzuek uste dute nahikoa dela Enplegu Institutu Nazionalean edo Lanbiden izena ematearekin. Nahikoa dute langabezia-sorospenarekin, eta ez dira konturatzen, subsidioa amaitzen zaienean, gorriak ikusiko dituztela".

Burujabe izatea

Zerbitzura lehen aldiz hurbiltzen direnei curriculuma egiten laguntzen zaie, eta lana topatzeko baliagarriak diren beste tresna batzuk jakinarazten zaizkie. Ordenagailua, internet eta posta elektronikoa erabiltzen ere ikasten dute, haiek lana topatzeko oso baliagarriak izan arren, askok ez dakitelako erabiltzen. "Guk ez dizkiegu gauzak egiten. Helburua hau da: tresnak euren kabuz erabiltzen ikas dezatela, etxean erabiltzeko eta hona berriro etorri beha-

Otsailean jarri zen abian, eta arreta pertsonalizatua eskaintzen du

Zerbitzua astelehenetik barikura egoten da zabalik, 9:00etatik 14:00etara. Ordua eska daiteke

rrik ez izateko. Ez dugu nahi geure laguntzaren beharrizanean izatea, curriculuma eguneratzeko edo interneten ibiltzeko. Eurek ikastea nahi dugu".

Eskaintzen diren zerbitzuak

Erabiltzaileari etengabeko laguntza pertsonala ematen zaio. Laguntza soziolaborala ez ezik lan merkatuari buruzko informazioa, enpresen zerrenda, informazio panelak eta ordenagailuak ere jartzen dira haren eskura.

Laster tailer batzuk jarriko dira martxan, enplegua eta alde pertsonala edo soziala aztertzeko. Besteak beste, gai hauek izango dira hizpide tailerrotan: lana bilatzea, baliabideak, autoezagutza eta autoestimua, aisialdiaren kudeaketa, gutxiagoarekin bizitzen ikastea eta lehenengo enplegua. Jendea irekiagoa izaten da prestakuntzari buruz dabilenean. Ikastaroen katalogoa jarri dute ikusgai Behargintzan, eta orientabidea jasotzeko ordua ere eska daiteke.

Beste alde batetik, berritasunak ere izango dira; esate baterako, Behargintzaren instalazioetatik lana eskaintzen duten enpresetara deitzeko aukera egongo da, elkarrizketak hitzartu eta lan merkatuari buruzko doako informazioa jasotzeko. "Lan bila dabilena ez da diruduna, eta zerbitzu horri esker murriztuko ditu gastuak".

Jesus Mari, adibide gisa

Jesus Marik esperientzia handia du garraio sektorean, eta lana galdu zuen abenduan. Zerbitzura jo zuen lana eraginkortasunez bilatzeko.

Zer egin duzu gela horretan?

Hara heldu nintzenean, esan zidaten curriculumak internet bidez bidaltzen direla orain. Eta beldurtu nintzen, betidanik oso zaila iruditu zaidalako informatika. Baina, egia esateko, harrituta lotu nintzen, ordenagailuaren korapiloak argi eta garbi erakutsi zizkidatelako eta hari nion beldurra galdu dudalako. Pare bat ikastaro egitera ere animatu nintzen, ordenagailua hobeto erabiltzeko. Curriculuma era egokian egiten lagundu didate, nire zalantzak argitzen saiatu dira eta laguntza ematen didate.

Mugitu zara langabezian egon zarenean?

Sondikara joaten nintzen goizero, laguntza zerbitzura; eta arrastiro, Larrabetzuko KZgunera. Hainbat elkarrizketa egin nituen eta, azkenean, gidari kontratatu naute, gaueko txandan supermerkatuetara salgaiak garraiatzeko. Pozik nago.

Gomendatuko zenuke laguntza-zerbitzu honetara jotzea?

Behargintzara joatea erabaki egokia izan dela jabetu naiz orain. Horregatik, langabezian daudenei esango nieke zerbitzura sarritan joateko; eta aukerarik badute, KZguneetara ere bai. Ez dira etxean gelditu behar, langabezia sariarekin nahikoa dela pentsatzen. Mugitu egin beharra dago.

Behargintza Txorierri

BEHARGINTZA TXORIERRI
Berreteaga Poligonoa 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)
Tfnoa.: 94.453.63.70
www.e-txorierri.com

Gazteentzako gastronomia-txapelketea eta zaldi-jauziak, aurtengo nobedadeak

Txupinazoa bota eta lau egunetan zehar zamudioztarrek jai-giroan murgilduko dira, bete-betean. Pazko jaiak maiatzaren 29tik bagilaren 1era arte ospatuko dabez.

Herrian eukiko dabezan urteko lehenengo jaiak dira, eta gogoz dabilz itxaroten. Zamudioko Pazko jaiek egitarau oparoa ekarriko deuskue aurten, baita nobedadeak be. Zapatuan 14 urtetik beherakoei zuzendutako gastronomia-txapelketea egingo da lehenengo aldiz. Parte-hartzaileek sukaldaritzan trebeak dirala erakutsi eta entsaladea eta edari freskagarriren bat prestatu beharko dabez. Herrian ekimen batzuk jarri dira martxan janari osasungarriaren ganean, eta ekitaldia horreen haritik antolatu dabe. Era berean, gaztetxoek protagonistak izan eta jaietan inplikatzea gura dabe antolatzaileek. Zaldi-jauzi txapelketea beste nobedade bat da. Txapelketea zapatuan egingo dabe, anbulatorio ondoko landeetan. Modalitate bi egongo dira: 60 zentimetroko altuerako oztopoak eta metro bateko altuerako oztopoak. Zaldiek gainditu beharko dabezan oztopoak naturalak izango dira kasu bietan. Horrezaz ganera, bost zaldi egongo dira, gura dauenak horreen ganean paseotxoa emoteko. Ekitaldia Aretxalde Lezamako Klub Hipikoaren laguntzagaz antolatu da eta arduradunek arrakastatsua izatea itxaroten dabe.

Nobedadetik aparte, musika, dantza eta kirolerako lekua be egongo da Pazko jaietan. Kontzertuak talde horreen eskutik izango dira: Sei Urte, Kauta, Une, Gatibu eta Trikizio. Baina egunean zehar be jai-giroa egotea Eguraldi Ona jai-batzordearen helburua da eta, ondorioz, ahalegin handia egin dabe ekitaldiak antolatzeko orduan: kalejirak, sukalki txapelketea, dantzaldiak, musika emonaldiak, dantzak... Motorzaleek be eurei zuzendutako ekintzak eukiko dabez. Zapatuan Zamudioko VI. Slaloma egingo dabe; eta domekan, auto klasikoen kontzentrazinoa.

Gora Zamudioko Pazko jaiak!

Parte hartu gure jaietan

Zamudio Udala

Jaiak euskaraz bizi!

CEMAN CONSTRUCCIONES

Telefono fijo: 94 452 09 05
Mobila: 609 727 575

Gratuito baloa, T-karta
eta AMBIBIDA kasoan

JUSTERRAK TABERNA

ETXEAN EGINE DUGUZU

Egunero menua
Kalkamarko kaloriak
Nondik jatin aurretik ikusi ahal duzu!

PB Peluquería Ana Belén estética solarium

CAFETERIA CENTURION

Espezialitateak: gozari eta pintxoak

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
Telefonoa 94 452 19 49 - Zamudio

TOLDOS TOGOBERRI

- Lona industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohialak
- Alokatzeko lonak

Tx. Kalvario auzoa bid. P2
Tel.: 94 452 13 68
Faxa: 94 452 27 41
Gaztelugatx'ondoan

Gestión Zamudio

Alokatzaileak Fidela

Jon Vázquez García
ALTURA-ARQUITECTURA

Bolueta T. Plaza
Zamudio (Bizkaia)
www.gestionzamudio.com / gestionzamudio@hotmail.com

Maiatzak 29k, barikua, Sabino Arana plazan
19:30: Txupinazoa eta gozokiak
19:45: Kalejira, trikitilariek, txistulariek eta buruhandiek girotuta
21:00: Perretxiko jana
24:00: Kontzertuak: Sei Urte + Kauta + DJ
Maiatzak 30k, zapatua, Sukalki Eguna
09:00: Sukalki txapelketea, Bidekoetxe parkean
10:00: Gastronomia-txapelketea, 14 urtetik beherakoentzat
11:00: Zaldi-jauzi txapelketea eta zaldi ganeko ibilbideak
11:45: Kalejira, trikitilariek, txistulariek eta buruhandiek girotuta
14:00: Sukalki txapelketearen sari banaketea
15:00: Zamudioko VI. Slaloma, kanposantuaren ondoko landetan
16:30: Dantzaldia, Erdizka Lauetan taldearen eskutik
20:30: Koralak, San Martin eleizan. Kantarte Gazteder (Barakaldo), Irutasun (Getxo) eta Zamudioko Kamara Korala
24:00: Kontzertuak: Une + Gatibu + Trikizio
Maiatzak 31, domeka
10:30: Umeentzako jokoak, Sabino Arana plazan
11:00: Mezea. Pelota partiduak, frontoian
11:45: Kalejira, trikitilariek, txistulariek eta buruhandiek girotuta
12.30: Auto klasikoen kontzentrazinoa, sukalkia egiten dan karpa ondoan
17:30: Dantzak, Hirubat eta Korrontzi taldeen eskutik. Ostean, Korrontzi taldearen emonaldia
19:30: Erromeria, Lotxo taldeagaz
Bagilak 1, astelehena
12:00: Mezea
12:30: Kopaua trikitilariek girotuta, eleizpean
16:30: Mus eta briska txapelketak, Adinekoen Etxean





Gora Zamudioko Pazko jaiak!







Ekainaren 5etik 7ra bitartean, Literaturia azoka egingo da

Larrabetzu euskara h literaturaren erakustok

Herritarrak azken ukituak ematen dabiltza, Literaturia herrira ekartzeko. Euskara hutsezko literatura azoka hori aurtengo jarduera garrantzitsuenetako bat izango da Txorierrin. Larrabetzu erakustoki erraldoia bilakatuko da eta euskal literaturaren inguruan dabilen mugimendua eta azken lanak ezagutu ahalko dira bertan.

Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Kukubiltxo, Elkar argitaletxea



Helburu nagusia da euskarazko literatura jendearengana hurreratzea eta literaturaren alde ludikoa agerian jartzea. Izan ere, liburuetan idazten dena baino zerbait gehiago da literatura: musikan, antzerkian, poesian, interneten... ere badago literatura.

Larrabetzuko Literatura Eskolaren baitan sortu zen Literaturiaren proiektua. Eskola hori orain bost urte jarri zuten abian, eta ibilbide labur honetan arrakasta handia lortu du Euskal Herri osoan. Baina harago joatea erabaki dute antolatzaileek, eta Larrabetzu euskal literaturazaleen topagunea izatea dute helburu. Horretarako, ekainaren lehenengo asteburuan literatura azoka bihurtuko dute herria. Liburuak ez ezik, kontzertuak, antzezlanak, mahai inguruak eta solasaldiak ere izango dira nagusi asteburu horretan.

Antolatze lanetan ez dira bakarrik ibili; beste hauek ere hartu dute parte: Arrekikili euskara elkartea, Txinpasmendi guraso elkartea, Hori Bai gaztetxea eta Larrabetzuko Udala. Egitarau zabala eta oparoa izan da emaitza.

Larrabetzun hiru gune nagusi atonduko dira literatura azoka hartzeko: Anguleri kultura etxea, Hori Bai gaztetxea eta eskola (azokagunea). Eszenatoki horietan hainbat ekitaldi egingo dira asteburu osoan: hitzaldiak, poesia errezitaldiak eta blogei buruzko berriketaldiak, esate baterako.

Gune berezia, gaztetxoentzat

Euskal argitaletxerik garrantzitsuenak etorriko dira azokara: Alberdania, Elkar, Erein, Igela, Maiatz, Susa, Pamiela, Txalaparta eta Utriusque Vasconiae. Beste alde batetik, 17 idazlek aurkeztuko dute euren azken lana: Koldo Izagirre, Garbiñe Ubeda, Asier Serrano, Uxue Alberdi, Irati Jimenez, Juanra Madariaga, Beñat Sarasola, Markos Zapiain, Xabier Soubelet, Auxtin Zamora, Mikel Peruarena, Xabier Mendiguren Elizegi, Edorta Jimenez, Josu Penades, Xabier Etxeberria, Martin Etxeberria eta Alberto Barandiaran. Aipatu beharra dago beste hainbat idazlek, editorek eta adituk ere hartuko dutela parte ekitaldietan: Katixa Agirre eta Julen Gabiria idazleak, Olatz Osa editorea eta Iratxe Retolaza kritikaria, besteak beste.

Gaztetxoentzat gune berezi bat atonduko da Anguleri kultura etxearen aurrean, eta han haientzako ekintzak izango dira: ipuinak, irakurraldiak eta errezitaldi musikatuak.

Azoka ekainaren 5etik 7ra bitartean egongo da zabalik; goizeko 11etatik arrastiko 2:30a arte, eta arrastiko 4:30etik iluntzeko 8ak arte.

Ezkerraldean: Julen Gabiria
Behean: *Hilario Mortimer* antzezlana
Goian: Petti

utsezko i bihurtu da



“Azoka horretan, bederatzi argitaletxek hartuko dute parte, eta 17 idazlek aurkeztuko dute euren liburua”

Egitaraua

Ekainaren 5ean, barikua
20:00: Aurkezpen-ekitaldia, Anguleri Kultura Etxearen aurrean.
21:00: Suzko Lilia, Hedoi Etxarteren errezitaldia, Hori Bai gaztetxean.
23:00: Pettiren *Awañak* diskoaren aurkezpena, Hori Bai gaztetxean.

Ekainaren 6an, zapatua
10:00: “Euskarazko literaturaren sistema: idaztea, argitaratzea, kritikatzea” mahai-ingurua, Anguleri Kultura Etxean. Parte-hartzaileak: Harkaitz Zubiri (moderatzailea), Fito Rodriguez (idazlea), Olatz Osa (editorea) eta Iratxe Retolaza (kritikoa).
12:00-14:30: Liburu aurkezpenak, azoka gunean (eskolak).
15:00: Bazkaria, azoka gunean.
17:30: Blogak & letrak, azoka gunean
Emailuetatik Volgara post-literatura / Patxi Gaztelumendi
Etxepare porno 2.0 (revisited) / Luistxo Fernandez
Bloga, hutsetik irribarrera / Juan Luis Zabala
Blogean zergatik idatzi / ez idatzi? / Julen Gabiria eta Beñat Sarasola
Zizeron, Victor Hugo, Monterroso eta beste zenbait blogari / Gorka Bereziartua
Beste habitat bat / Katixa Agirre
Liburu elektronikoari buruzko kafetertulia / Josu Landa (*armiarma.com*) eta Egaroa liburu-denda elektronikoa
Argitalpen lizentziei buruzko eztabaida irekia
Komuneko paperean idatzitako poemen errezitaldia / Bi anai
18:00: *Ametsen museoan* umeentzako antzezlana, Anguleri Kultura Etxean. Eidabe taldearen eskutik.
20:30: *Mirande kabareta*, Hori Bai gaztetxean.
23:00: Joseba Irazoki, Hori Bai gaztetxean.
PoetTUBE poema errezitaldia
Bi hitz: beats_bits / dj Kaiku & dj Fufu

Ekainaren 7an, domeka
11:00-14:30: Liburu aurkezpenak, azoka gunean.
15:00: Talo-jana, plazan.
17:30: Bazkalosteko solasaldia, mahai-ingurua idazleekin..., azoka gunean
19:00: Mikelazulo taldearen *Ate hautsiak* poesia errezitaldia, Hori Bai gaztetxean
20:30: *Hilario Mortimer* antzezlana, Hori Bai gaztetxean. Kukubiltxo taldearen eskutik.

LITERATURIATXUA, HAURRENTZAKO GUNEA
(Anguleri Kultura Etxearen aurrean)
Ekainaren 6an, zapatua
11:00: Gunea apaindu eta ongi etorria eman kontalari datozen ume eta nagusiei.
12:00: *Antzinakeriak* umeentzako antzerkia.
16:30: Larrabetzuko jendeak ekarritako ipuinak, istorioak...

Ekainaren 7an, domeka
11:00: Asmakizun-orienting jolasa.
12:00: Idazle/irakurle/ipuingileen ordua: irakurketak, berbaldia...
17:00: Errezitaldi musikatua, Txorierri Institutuko ikasleen eskutik.
18:00: Solasaldia, irakurle ezagunekin eta Larrabetzuko gazteekin.



Protagonistak, “Literaturiaz”

Larrabetzu euskal idazleen, editoreen, aktoreen, musikarien eta irakurleen bilgunea izango da ekainaren lehenengo asteburuan. Larrabetzuarrek, txorierritarrek eta Euskal Herri osotik etorritako lagunek Literatura eta horren inguruko mundu zabala edukiko dituzte hizpide “Literaturia” azokan. Hemendik aurrera egutegian apuntatu beharko dugun hitzordua, ziur asko.

Elkarrizketak: Gotzon Barandiaran

Gorka Arrese, SUSA argitaletxeko editorea

“Durangoko Azoka ezin da erreferentzia bakarra izan gure letrentzat”



Egilea: Dani Blanco / Argia

Zein nobedade erakutsiko ditu Susa argitaletxeak Literaturia jardunaldietan?
Nobela bat, saiakera bat eta poema liburu bi; denera lau liburu berri izango dira Literaturiara eramango ditugunak. Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori* (nobela), Garbiñe Ubedaren *Mila ezker* (saiakera), Beñat Sarasolaren *Alea* (poesia) eta Juanra Madariagaren *Eroriaren logika* (poesia).

Zein garrantzia ematen dio Susak Literaturia bezalako ekimenei?
Euskal literaturak behar du bere asteburu propioa. Uste dut Literatura Eskolako kideak ondo jabetu direla, Durangoko Azoka ezin dela erreferentzia bakarra izan gure letrentzat; areago, Durangoko Azoka ikaragarri hazi da (baita erdaraz ere), eta han idazlea eta literatura ito samar geratzen dira. Aire berri eta freskoa ekarriko du Literaturiak, dudarik gabe.

Euskarazko idazleek zer argitaratzen duten ezagutzen dugu, gutxi gorabehera; zelangoa da editorearen lana?
Idazleari laguntzea, ahalik eta testu literario onena argitara dezan. Editore bakoitzak bere estiloa eta estrategiak ditu. Eta aldi berean ez da ahaztu behar argitaletxe bakoitzak lan egiteko modu bat duela, denek dituztelako jatorri eta helburu ezberdinak... eta zer esanik ez, denak direlako diferenteak enpresa egituraz eta tamainaz, irizpide eta baliabide aldetik. Susa idazleek sortutako argitaletxea da, eta uste dut horrek bere izaera markatzen duela, bai kezken bai arduren aldetik. Susak helduentzako literatura soilik argitaratzen du, beti euskaraz; eta horrek ere markatzen gaitu. Esango nuke idazle gehienek horren kontzientzia badutela, eta pixkanaka baita irakurleek ere.

> *“Jaurlaritza berriari eskatuko nioke ardura dadila liburutegietan ez dadin falta euskal literatura berriena”*

Zer eskatuko zenioke Jaurlaritza berriari euskarazko liburugintzari dagokionez?
Ez ditzala argitaletxe guztiak berdintzat jo. Dibertsitatea sustatzeko eta laguntzeko politikaz joka dezala. Komertzialki gutxienak diren generoei babes berezia eman diezaiela. Ez dezala irizpide industrialik erabili subentzio moduak erabakitzeko orduan. Argitaletxe berriak sortu ahal izateko laguntza-bideak erraztu ditzala. Idazle-editorea ere aintzat har dezala beti. Ardura dadila liburutegi publikoetan ez dadin falta euskal literatura berriena. Eta euskarazko liburuak bere ISBN (edo matrikula) propioa izan dezan lehen urratsak eman ditzala.

Uxue Alberdi, idazlea

“Herri ekimenetik sorturiko asmo guztiak behar-beharrezkoak iruditzen zaizkit”

***Aulki jokoa* liburua aurkeztera hurreratuko zara Literaturiara. Zeri buruzko eleberria da?**

Euskal Herriko herri arrantzale bateko hiruzpalau pertsonaiaren bizia kontatzen du bi garaitan. Protagonistek 80-95 urte dituzte gaur egun, eta egunero elkartzen dira Ixabelen gozotegian kafea hartzeko, nor bere aulkian. Hiru emakumeren ahotsek josten dute eleberri honen sarea: Teresa, Martiña eta Eulali haurrak ezagutuko ditugu; baita haiek berak gaztetan ere; eta zahartzaroan, azkenik.

Umeen jolasa izateaz gain bizitzaren metafora da aulki-jokoa: aldiro gutako bat gelduko da aulkirik gabe, eta utzi egin beharko du joko-zelaia. Baina musika itzaltzen den artean dantzan jarraitzea baino ez zaigu geratzen, eta dantza horretan korapilatuko dira maitasuna, gerra, askatasuna, asaldatzea, duintasuna eta lore moreak.

2007an argitaratu zenuen *Aulki bat elurretan*, eta 2008an “Joseba Jaka” bekara aurkeztu zenuen *Aulki jokoa*. Bitartean hainbat hitzaldi eta bertso saiotan hartu zenuen parte. Noiz bururatu zitzaizun eleberri honetarako istorioa?

> *“Literatura Eskolako kidea izan nintzen; liluratu egiten ninduen letren munduari buruz zenbat zekiten ikusteak”*

Orain hiru urte hasi nintzen istorio honi bueltaka, Getariako aiton-amonei bisita egin genien batean. Kafetegian zeuden haien lagunekin; eta txoko batean, elkarren gainean pilatuta, zaharren makulu guztiak: hamaika makila. Makila bakoitzaren istorioa, eta istorio guztiak elkarrekin gozotegi batean. Hamaika makila haiek aulki-joko bihurtzea bizpahiru urtetako lana izan da.

Literaturia egitasmoaren sustatzailea den Literatura Eskolako kidea izan zinen. Zein oroitzapen duzu?

Oso onak. Literatura Eskola martxan jarri berritan izan nintzen bertako partaide, 19 urte nituela, oso gazte. Gogoratzen dut niretzat harrigarria zela hainbeste jende biltzea literaturaren inguruan; liluratu egiten ninduen nik intuizioz soilik ezagutzen nuen letren munduari buruz zenbat zekiten ikusteak… eta ikasteko gogoa piztu zidaten, gehiago jakiteko grina. Bertsotan hasi nintzenetik, tamalez, asteburuetan lanpetuegi edo nekatuegi egon ohi naiz larunbatetako eskoletara joateko, baina bejondeiela!

Zein garrantzia dute euskarazko idazlearentzat Literaturia bezalako egitasmoek?

Handia. Zirkuitu ofizialetatik kanpo oso gauza gutxi egiten dira kultura-esparru guztietan, eta herri ekimenetik sorturiko asmo guztiak behar-beharrezkoak iruditzen zaizkit. Gainera, ez da sanoa literatur sistema ia Durangoren inguruan soilik; ia argitaletxe baten inguruan soilik eta ia patroi bakarraren arabera soilik eraikitzea eta erreproduzitzea. Mugimendua beti da onerako.

Galder Perez, aktore, zuzendari eta gidoigilea

“Antzerkia literatur genero potoloa da”

Korrika kulturalean estreinatu zenuten *Mirande Kabareta* aurkeztuko duzue ekainaren 6an Larrabetzun. Zer da *Mirande Kabareta*?

Guk, Ane Zabalak eta biok, gorpuzten ditugun pertsonaientzat marroia da, kaka. Kar-kar! Ikusleentzat, ordea, plazerra izatea espero dut; guretzat den bezala, noski. Ikuskizuna, koktel berezia da, kabareta eta literatura nahasten ditu. Ametsa ere bada, Ibiñagabeitiak Miranderi gutun batean esan bezala, euskarazko kabareta sortu dateta.

Jon Mirande idazle maitatua bezain gorrotatua izan da eta da euskarazko literaturazaleen artean.

Bai, eta horregatik hain interesgarria kabareterako; kabareta probokazioa da, Mirande bera probokazioa zen bezala. Ikuskizuna bere figuraren inguruan idatzi zuen Edorta Jimenezek. Parisen kokatzen da kabareta, Mirande bera gure artean dela, itzalean bada ere. Idazleak ikusleak zein musikariak eta antzezleak probokatu nahi ditu, baina bere kontra egingo dute antzezleek. Itzel erakargarria iruditzen zait Mirande bera pertsonaia bezala. Nik gorroto baino, asko maite dut bere probokazioa, ausardia eta ezkutuko umore iluntxo hori…

Gilkitxaro taldearen hainbat obratako testuak idatzi dituzu. Antzerkia genero literarioa dela kontuan hartuta, zein egoeratan dakusazu gaur egun?

Genero literario bezala uste dut nahiko ahaztuta dagoela edo daukagula, nolabait. Badirudi idazten diren antzerki testuak, gidoi hutsak direla, testu literarioak beharrean. (Zuek ere gidoigilea jarri duzue.) Tamalez, tendentzia dirudi; gero eta gidoi gehiago eta literatura gutxiago. Niretzat antzerkia literatur genero potoloa da, oso gustuko baitut irakurle zein sortzaile bezala. Batzuk diote irakurleari lan handia, handiegia, eskatzen omen diola, baina ez al da hori gauza ederra irakurlearentzat?

Antzezlanak idazterakoan, ahozkoaren eta idatziaren oreka lortzea erraza egiten zaizu?

Oreka zaila da idazteko, berba egiteko, bizitzeko… Horregatik, sinesgarritasunean sinesten dut gehiago. Ez dut uste idazteko soilik edo hitz egiteko soilik letrak existitzen direnik. Sinesteko, sentitzeko edota bizitzeko testuak idazten saiatzen naiz. Horregatik batzuetan kaosa oreka baino interesgarriagoa da, biziagoa eta bortitzagoa.

> *“Batzuetan kaosa oreka baino interesgarriagoa da, biziagoa eta bortitzagoa”*

Sondikako jaiak Gora San Joan!

SONDIKAKO JAILIAN DIBERTSIOA BAI!

Etorri eta parte hartu





Sua piztuko dabe S

San Juan landea Sondikako jaien eszenatokia izango da beste behin be. San Juan jaiak musikaz, gastronomiaz, kirolez eta jolasez jatorkuz.

Naia Landa eta Maialen Bilbao Sondikako jai-batzordeko kideek azaldu bezala, herritar guztiei zuzendutako egitaraua osatzen ahalegindu dira. Eta horretarako, aurreko urteetan antolatutako ekintzak hartu dabez oinarritzat: dantzen agerraldia, txapelketak, txakolinen dastaketea... Baina nobedadeak be sartu dira aurtengo egitarauan.

Umeak jaietako protagonistenetarikoak dira eta ohiko ekitaldiez aparte, apar-jaia antolatu da aurten eurei begira. "Era berean, gazteentzako ekintza gitxi egiten zirala ikusi dogu eta hutsune hori betetzeko asmoz, bike-trialaren erakustaldia izango da. Karaokea be bada beste nobedade bat".

Ohiturak berreskuratu be egin ditu jai-batzordeak. Antxina artzain-txakurren erakustaldia izaten zan jaietan, eta domekan ikuskizun horretaz barriro gozatzeko aukerea egongo da. Baina ardiak bildu beharrean antzarak gobernatu beharko dabez txakurrek oraingo honetan.

Parte-hartzea egunean zehar handia izan arren, gaua da lagun gehien biltzen dauen momentua. Horregaitik, sondika-

> *"Nobedadeez ganera ohiturak be berreskuratu dabez jaietan"*

ondikan

rren eta txorierritarren gustuko musika talde euskaldunak ekarriko dira: Sugan, Trikizio, Kauta eta Trikitake. "Horrezaz ganera, aukerea emongo jake herriko taldeei, eszenatokira igon eta euren musikea aurkeztu deiguen".

Egan Berria errepikatuko dauen taldea da. Igaz eskaini eben saioa erabat arrakastatsua izan zan, eta aurten dantzen agerraldiaren ostean ekingo deutsie erromeriari. "Ahalik eta jente gehienak hartu daian parte saioan". Beste alde batetik, eskolako Gurasoen Alkarteak urtero antolatzen dauen jaialdia martitzenera eroango da. "Ohiko jokoak berreskuratzen saiatuko dira: aulkijokoa, arto bilketea...".

Txupinazoa bariku iluntzean botako da; txupinazoa eta konfetiak. Handik aurrera, eta sei egunean zehar, jai giroa nagusi izango da Sondikan. "Jentetza etortzea gura dogu; eta pozik joan daitezala etxera". Dana dabe prest horretarako, landan euritik babesteko jarriko dan karpa erraldoia be bai.

Sugan taldea

Jai-egitaraua

Ekainak 19, barikua
18:00: Potxin eta Patxin pailazoak
19:00-22:00: Fanfarrea
20:00: Txupinazoa
21:00: Txahal-okelaren dastaketea
21:00: Tortilla txapelketea
23:30: Sugan + Trikizio + Dj

Ekainak 20, zapatua
11:30: Kalejira, Elaiak taldearen eskutik
12:30: Apar-jaia
13:00: Sagardo eta txakolinen dastaketea
16:00: "San Joan" Futbol 7 Txapelketa
18:00: Bigantxak
19:30: Dantzen agerraldia
23:00: Suak

23:30: Futbol 7 Txapelketaren saribanaketea
23:30: Kontzertuak: Kauta + Trikitake + Dj

Ekainak 21, domeka
12:30: Kalejira, Elaiak taldearen eskutik
13:00: Artzain-txakurren erakustaldia
14:00: Sukalkia
16:00: Mus Txapelketea
18:00: Dantzen agerraldia
20:00: Berbena, Egan Berria taldearekin

Ekainak 22, astelehena
17:00-19:00: Haur parkea
19:00-21:00: Karaokea
22:30: Kontzertuak: Malos Ratos + Habemus Ratas + Hipo-hop

Ekainak 23, martitzena
Festa, Gurasoen Alkartearen eskutik
18:30: Bigantxak
19:00: Kalejira, Elaiak taldearekin
20:00: Bike-trialaren erakustaldia
23:00: San Joan sua
00:00: Orkestrea: Kresala

Ekainak 24, asteazkena
12:00-15:00: Fanfarrea
12:30: Mezea + aurresku
13:00: Iparraldeko jokoak
13:30: Kopaua, jubilatuentzat
20:00: Francisco Villar eta Real Gala bere mariachia
21:00: Petardo-sorta

Dantzea argazkian harrapatu dogu



Argazkiak: Amaia Bustinza

Bizkaiko Dantzari Eguna kostaldean ospatu da aurten; Bermeon hain zuzen be. Dantzari Eguna da, batik bat, gure lurraldeko dantzarien urteko jaialdia; Bizkaiko Dantzarien Bitzarraren barruan dagozan dantza taldeen topagunea. Ekitaldian 4.000 dantzari inguruk hartu dabe parte, eta ikuskizunak 10.000 ikusle baino gehiago izan ditu. Txorierriko dantza taldeek be izan dira bertan; eta guk argazkilaria agindu dogu hareekaz batera, dantzea bera eta horrek eskaintzen deuskuzan momentuak kamarean harrapa dagiazan.

imk

nire etorkizuna...
mi futuro...

BaiSí

FORMAZIO ZIKLOAK/CICLOS FORMATIVOS

www.itsasmendikoi.net

CFGS MAILAKO

- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]

GRADO MEDIO

- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]

GRADO SUPERIOR

- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]

IMK Arkotxa
[illegible]
Tel.: 945 26 53 07
[illegible]
[illegible]

IMK Durango
[illegible]
48200 Durango (Bizkaia)
Tel.: [illegible]
[illegible]
durango@itsasmendikoi.net

IMK Erandio
[illegible]
48950 Erandio (Bizkaia)
Tel.: [illegible]
[illegible]
erandio@itsasmendikoi.net

IMK Portugalete
[illegible]
48920 Portugalete (Bizkaia)
Tel.: [illegible]
[illegible]
portugalete@itsasmendikoi.net

Euskal Aste arrakastatsuak hasiera eman dio Lagatzuren urteurrena ospatzeko ekitaldiei

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak 10 urte bete ditu eta urteurrena handitasunez ospatzen dabiltza. Aurreko urteetan bezala, Euskal Astea antolatu dute maiatzean, baina aurtengoa bereziagoa egin nahi izan dute, "datorren hilabetean herrian izango dugun Euskal Jaiari begira, motorrak berotzeko". Horrela, bada, Euskal Astea urte osorako prestatu ohi dituzten ekitaldien erakusgarria izatea eduki dute helburu, eta ekintza sorta zabala antolatu dute hilaren 22tik 27ra bitartean.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Piratak* ikuskizuna Euskal Astearen lehenengo hitzordua izan da. Pailazook euskal umeengan sortzen duten ikusmina nahiko ezaguna da; beraz, ezer gutxi aipatu behar da: kiroldegia umez gainezka egon zen, zein baino zein pozago.

Zapatuan umeentzako beste ekintza bat egin zuten: ibilaldi didaktikoa, Zamudion zehar. Umeentzako ibilaldia antolatu den lehenengo aldia izan da, eta umeek herriko txokoak eta eraikinak ezagutzea izan du helburu. Parte-hartzaileei gida didaktiko bana eman zitzaien, Zamudioko ondareari buruzko ariketak lantzeko. Hala ere, zapatuak beste ekitaldi bi ekarri zizkigun. Bertoko soinu tresnen elkarteak Lagatzuren urteurrenaren haritik konposatutako kanta aurkeztu zuen goizean, eta diskoak eta DVDak banatu zituzten ikusleen artean. Erramun Martikorenak kantaldia eskaini zuen iluntzean. Eta hurrengo egunean, goiz altxatu behar.

> *"Elkarteak eta herritarrak ilusio handiz prestatzen dabiltza Euskal Jaiaren egitaraua eta jantziak"*

Euskal jaia, buruan orain

Domeka goizean "Zamudio ezagutu" mendi ibilaldia egin zuten hamargarren aldiz, herriko alde bateko mugarrietatik. Horren ostean, txakolin dastatzea izan zen, indarrak-edo berritzeko.

Patxi Zubizarretaren *Hamar mezu eta dei bat* errezitaldi musikatua astelehenean izan zen, eta martitzenean euskararen etorkizuna izan zuten hizpide mahai-inguru batean. Mahai-ingurua Udane Goikoetxea kazetariak zuzendu zuen eta Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazleak, Xabier Goienetxe Totoaneko presidenteak, Asun Basaras Txorierri Institutuko irakasleak eta Sorkunde Aiarza Zamudioko alkateak hartu zuten parte. Euskal Kanten X. Ikastaroaren lehenengo saioak amaiera eman zion eguaztenean Euskal Asteari.

Antolatutako ekitaldi guztiak arrakastatsuak izan dira, jendetsuak, eta pozarren daude elkartekoak. Orain buru-belarri dabiltza Lagatzu Eguna prestatzen. Hura ekainaren 27an ospatuko dute eta, zalantza barik, egun berezia izango da. Aurten, Euskal Jaia antolatuko dute herriko beste elkarteekin batera. Elkarteek zein herritarrek gogotsu eta ilusio handiz hartu dute Euskal Jaia. Egitarau oparoa ez ezik euskal jantziak ere badabiltza prestatzen, ekitaldian euskal arropaz jantzita parte hartzeko deia zabaldu baitute antolatzaileek. Ziur gaude Zamudioztarrek ez ezik Txorierriko euskaltzaleek eta lagunek ere egingo dutela bat ekimenarekin.

LAGATZU EGUNA
EUSKAL JAIA

10 urte LAGATZU

Zamudio Udala

EKAINAREN 27AN, ZAPATUA

10:00: MAMORRADA herrian zehar eta ondoren umeentzat
KALEJIRA, Berriko eta Gaztu Alai Txistu taldeekaz
ZAMPANTZARRAK
11:00: HAMAIKETAKOA, eskolatan
EUSKAL PRODUKTUEN azoka erakusketa i etxeko plazan
11:30: BASERRI JUEGUAK, Kulki taldeagaz, eskolatan
IALÓ TAILERRA, Alai Aurrekoetxeagaz, eskolatan
13:00: KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
Herrian eta bertoslariak
Zampantzarrak
Hau bai da Gaztu Alai
15:00: HERRI BAZKARIA, eskolatan.
15 euro nagusientzat; 10 euro umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai
17:00: BERRIÓ KANTAK, taberna Ibilbaogaz
20:00: ERROMERIA, Luhartz taldeagaz

Zamudion
EUSKARAZ

Animatu eta parte hartu kontrikaz
Jentzi zaitez antzinako euskal europeaz
ETA EUSKARAZ GOZATU!!!

Eskolako jantokiaren aldeko afaria, Larrabetzun

Maiatzaren 9a, zapatuz. Gaueko hamarrak laurden gutxi. Athletic-en partida bukatu egin da (eta irabazi, gainera), eta afaltzera abiatu gara. Baina ez etxera. Gaur Larrabetzuko eskolan afalduko dugu. Goi mailako afaria. Afari paregabea.

Testua: Ines Serrano / Argazkia: larrabetzu.org

Zer dela eta? Herriko eskolako jantokia Guraso Elkarteak kudeatzen du. Gurasoak dira elikagaiak aukeratzen, menuak antolatzen eta azpiegitura kontuak bermatzen dituztenak. Horrela izan da urteetan eta horrela jarraitzen du. Oraingoz, behintzat. Izan ere, aspaldi honetan egoera honek beste eskolek jasotzen duten diru laguntzarik ez hartzea ekarri du, beharginen ordezkorik ez izatea, eta bestelako eragozpenak. Eta jantokiak, autokudeatzeko ahalmena izan arren, ezin du enpresa handiek hartzen dituzten beste eskolen baldintzekin lehiatu.

Beraz, bestelako irtenbideak etorri bitartean diru iturri berriak lortzeari ekiten dio, ahal dela. Oraingoan afari desberdin bat eskaintzea pentsatu da. Eta baita egin ere. Lau sukaldari, sumiller bat eta hamabost zerbitzari, laurogeita hamazazpi jale gogotsuei zenbait "delicatessen" mahai gainean aurkeztu gurean. Sarrerako platerak, plater nagusiak eta postreak; eta jaki bakoitzari dagokion ardo hautatuaz lagunduta, gauean zehar "maridaje" deitzen zaion ariketa gastronomikoa osatzen joan zen.

> *"Ekimena aurrera ateratzen hainbat eta hainbat guraso eta lagunek hartu dute parte, bakoitza bere alorrean"*

Auzolanaren uzta

Lekua okasiorako bereziki prestatua zen: argi meheak, mahai koloretsu apainduak, musika goxoa… Mahai bakoitzeko zerbitzari bat, eta jakiak eta edarien arteko lotura eta egokitasuna azaltzen sumillerra, eskolako gurasoa, Aikor! aldizkariaren laguntzailea, antolatzaile aparta. Izan ere, ekimena aurrera ateratzen hainbat eta hainbat guraso eta lagunek hartu dute parte, bakoitza bere alorrean, kartelaren diseinua, dekorazioa, menuen eraketa, azpiegitura, garbikuzia… Elkarlanaren emaitza, auzolanaren uzta, aho zapore goxoa utzi duena. Hori behintzat adierazi zuten bertan afaldutako guztiek, urdaila ondo beteta, eta gauari jarraipena emateko gogoz. Ordutik aurrerakoak beste kronika baterako utziko ditugu…



POLITEKNIKA IKASTEGIA

TXORIERRI

S.COOP.

Centro de Formación Profesional y Formación Ocupacional
Lehiberritzeko Zerbitzu Integratu Berezia

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

Gure hezkuntza-eskaintza

BACHILLERATO / BATXILERGOA

- Bachillerato de Ciencias y Tecnología
  Zientziak eta Teknologiako Batxilergoa

CICLOS FORMATIVOS DE GRADO MEDIO
DERI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK

- Electromecánica / Mekanizazioa

CICLOS FORMATIVOS DE GRADO SUPERIOR: DERI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK

- Gestión comercial y marketing
  Merkataritza kudeaketa eta marketing
- Sistemas de regulación y control automáticos
  Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Sistemas de telecomunicación e informáticos
  Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Desarrollo de proyectos mecánicos
  Proiektu mekanikoen garapena
- Programación de la Producción
  Produkzioaren Programazioa
- Diseño industrial / Diseinu Mekanikoa

- Nerehala lan-merkatuan kontrako aukera bermatuko dizuten ikasketak egiteko moduko, ikastetxe bat
- Multi eta mendeko artekoa bertaratzeko lantzen duena
- Irakasle onenak dituena
- Harremanak-gure bikaina duen kooperatiba
- Ikastetxe hurbila, komunikazio bikainekin eta ikastetxeko garraiobarekin
- Enpresaren munduarekin konektatuta dagoena, prestakuntza praktikoa bermatuko dizuna, baita atzerrian ere
- Ikastetxe urbanoena teknologia berrienekin
- Kostu txikienak dituen ikastetxea; kostu horiek guztiak beka programaren bidez finantzatu daitezke Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin

Etor zaitez eglaztatzera

Abek irekitzeko egunak

Gure instalazioak jakiteko eta laborategiak ikusteko aukera
18.00tik aurrera.

Gazteentzako aisialdia, aztergai Lezaman

Gazteek ez dituzte herrian dauden aisialdiko aukerak ezagutzen. Hala jaso dute Lezamako gazteen aisialdiari buruzko txosten batean. Txostena Gurasoen Elkarteak egin du herriko elkarte eta instituzioekin batera, eta ikerketan 46 gaztek hartu dute parte.

Lezamako Eskolako Gurasoen Elkarteak kezka hau izan du: seme-alabek zertan eta nola ematen duten aisialdia. Izan ere, behin adin batera helduta, Lezaman "ez dituzten" ekimenak herritik kanpo topatu behar dituztela antzeman dute. Kezka herriko elkarte eta Udalarekin partekatu dute, baita Txorierriko Mankomunitatearekin ere. Emaitza Lezamako gazteen aisialdiaren inguruko diagnostikoa, hausnarketak eta proposamenak batzen dituen txostena izan da. Herriak dituen aisialdiko baliabideak abiapuntutzat hartu dituzte ikerketari ekiteko orduan. "Alde batetik, zer dugun ikusteko; eta bestetik, zer dugun falta eta zer hobe daitekeen aztertzeko".

Lehenengo eta behin, zer aztertu argitu dute, eta horretarako, "aisialdirako baliabide" kontzeptua zehaztu dute. Kontzeptu horren barruan baliabide fisikoak eta pertsonalak bereizi dituzte. Era berean, kultura arloa eta kirol arloa desberdindu dituzte. Besteak beste, ikertutako baliabide fisikoak hauek izan dira: kiroldegia, Ua, rokodromoa, frontoia, eskola, gaztelekua, Goitioltzako txokoa, kalea eta Kultura Aretoa. Herriko elkarteak baliabide pertsonalen barruan aztertu dira: Gailur, Zorribike, Ekidazu, Zorrizketan, Oxangoiti, Urrusti eta Pilota Eskola, tartean. Baliabide fisiko zein pertsonalak ikertzeko, parametro hauek hartu dira kontuan: azpiegitura/elkartea gazteei espresuki zuzenduta dagoen, gazteen parte-hartzea, jardueraren maiztasuna eta berezitasuna, prezioa, irisgarritasuna eta genero ikuspegia.

Inkesten emaitzak

Beste alde batetik, inkestak banatu dituzte herriko gazteen artean. Inkesta 10 urtetik 16 urtera bitarteko 46 lagunek bete dute; 25 neska eta 21 mutil. Inkestan hainbat galdera egin zaizkie Lezamako baliabide publiko zein pribatuei buruz; Txorierriko azpiegitura eta ekimenen gainean ere galdetu zaie. "Azpimarratzekoa da gutxi ezagutzen dituztela Lezaman eta bereziki eskualdean dituzten baliabideak".

Gazteek orokorrean iritzi ona dute herriko baliabideei buruz. Hala ere, igerilekuak eraikitzeko eskatzen dute aho batez, eta film eta urte-sasoiko ekintza gehiago egiteko. Kirol instalazioei dagokienez, baloraziorik onena eduki duena kiroldegia izan da, eta baloraziorik txarrena lortu dutenak, rokodromoa eta frontoia. Igerilekuez gainera skate parkea eta gimnasioa ere jotzen dituzte beharrezkotzat. Gaztegunea ondoen baloratu duten kultura-baliabidea da; eta Kultura Aretoa, okerren. Gazte gehienek ordenagailuak euren eskura egoteko eskatu dute.

Lezamako baliabide publikoek zein pribatuek eskaintzen dituzten ekimenak orokorrean ezagutzen ez badituzte ere, ondoen baloratzen dituztenak jaiak eta Gailur, Ekidazu eta Biziak elkarteek antolatzen dituzten ekintzak dira. Euren adinera

> *"Baloraziorik onena lortu dutenak kiroldegia, gaztegunea, jaiak eta zenbait elkarteren ekimenak izan dira; rokodromoak, frontoiak eta Kultura Aretoak ez dute azterketa gainditu"*



Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Lezamako Udala

> *“Txostenaren egileek gazteen antolakuntzarako espazioak sortzeko beharra ikusten dute; euren iritziz, azpiegiturak gazteen ikuspuntutik kudeatu beharko ziren”*

egokitutako ekintzak eskatzen dituzte, udan, Aste Santuan eta Gabonetan egiteko. Lezamatik kanpo, ondo baloratzen dituzte Zamudioko eta Derioko baliabide eta ekimenak, baina ez dituzte ezagutzen gainontzeko herrietakoak.

Aukera gutxi neskentzat

Gazteen iritziak eta herriko aisialdiko azpiegiturak aztertu ondoren, lan-taldeak hainbat hausnarketa egin ditu. Horrela, gazteen antolakuntzarako espazioak sortzeko beharra ikusten dute, astialdiko ekimen guztiak nagusiek proposatzen baitituzte. “Bide batzuk zabaldu dira –gaztelekua eta gaztegunea-, baina lan handia dugu norabide horretan. Neurri erraz batzuk hartuko balira, adibidez, asteburuetan kiroldegiaren argia gaueko 10ak arte piztuta egotea, kalearen kudeaketa propioa indartuko lirateke eta kirola egiteko aukerak biderkatu”. Horrezaz gainera, azpiegiturak gazteen ikuspuntutik kudeatu beharko zirela pentsatzen dute. Komunikaziorik eza beste ahulezia bat da, “aisialdiko aukerak egon arren, ez direlako behar bezala ematen jakitera”.

Lezama dituen elkarte-kopuruz harro egon daitekeen herria da, baina txostenaren egileek azaldu duten moduan, elkarteek elkarlana ahazten dute askotan. “Proiektu ezberdinen inguruan elkarteek elkarrekin lan egiteak aisialdirako aukera gehiago ekarriko zituen”.

Neskek kirol arloan dituzten aukerak ere oso eskasak dira, lan-taldearen iritziz; batez ere eskola utzi eta gero. “Datorren ikasturteari begira, beharrezkotzat jotzen dugu nesken kirol talderen bat eratzea, eta instituzioek esku hartu beharko zutela uste dugu”.

Proposamenak Udalari

Txostenaren egileek proposamen batzuk helarazi dizkiote Udalari, Lezamako gazteen aisialdiko aukerak hobetzeko asmoz. Horien artean, hurrengoak aipa daitezke:

–Gazteen parte-hartzea sustatzea. Helburua gazteak euren aisialdia kudeatzeko gauza izatea da. Gazteentzako lokalak elkar ezagutzeko topaguneak izan behar dira, zabalak, euskaldunak eta genero-perspektiba zaintzen dutenak. Gazteek kudeatu eta Udalak gainbegiratu beharko zituen.

–Herriko elkarte eta gazteen arteko harremana indartzea.

–Harremanak bultzatzea gazteei zuzendutako Mankomunitateko beste lokalekin.

–Uda programa indartzea, gazteentzat erakargarriak izan daitezkeen ekintzen bidez. Era berean, ordutegi eta izena emate malguagoak proposatzen dituzte, eta herriko baliabide fisikoak zein pertsonalak erabiltzea. Alboko herriekin batera ekintzak antolatzea ere interesgarritzat jotzen dute.



Eguzkibegi ikastola, Ibilaldiaren aurtengo antolatzailea

“Jentea eroso etorri eta pozik alde egitea gura dogu”

Galdakaoraino 100.000 lagun baino gehiago hurbiltzea espero da maiatzaren 31rako; txorierritar asko, tartean. Izan be, bertako Eguzkibegi ikastolak Ibilaldia antolatzeko ardurea hartu dau aurten. Mikel Urdanpilleta ikastolaren zuzendariagaz eta Mari Jose Arriandiaga ikastolaren presidenteagaz izan gara berbetan.

Dana prest?

Hainbat erabagi hartu behar izan doguz orain arte, eta dan-dana prestatzea ez da erraza izaten. Gauza batzuk azken momentuan lotzeko beharra dago, baina gauzak ondo bideratuta dagoz eta hainbat lagun dabilz beharrean honen inguruan. Ziur gagoz maiatzaren 31n dana behar moduan urtengo dauena.

Ekintzak Ibilaldiaren egunari begira ez eze ikasturtean zehar be antolatu dozuez. Behar handia eskatzen dau halango jaialdi batek, ezta?

Bai, maiatzaren 31ren haritik ibilbidea, guneak... atontzen ibili gara oraintsu arte, baina ikasturtean zehar be ekitaldi sorta zabala egin da: kirol ekintzak, kultura arlokoak... Horreek be antolaketea dakarre, eta beharra egon da alde horretatik. Ikasleen parte-hartzea handia izan da, eta eurei eskatutako guztiari baietz esan deutsie. Ikasle ohien parte-hartzea be itzela izan dala aitatu behar dogu, baita prestatze-beharretan jente asko ibili dala be: gurasoak, kide ohiak, Udala, herriko kirol eta kultura taldeak, laguntzaile asko...

Zer itxaroten dozue egun horretatik?

Jentea Galdakaora eroso etorri eta pozik alde egitea gura dogu. Horretarako, asko zaindu doguz ibilbide osoan eta herrian zehar egingo diran ekintza, emonaldi eta jarduera ezbardinak, jentea giro ederrean egoteko. Gurea jai hutsa izatea ez dogulako gura; jaiegun biribila, osatua, izan daiten ahalegindu gara.

Ibilbide aldapatsua baina polita izango da. Zer eukiko dogu zain gune bakotxean?

Guneak aniztasuna eta ugaritasuna kontuan hartuta atondu dira, leku gehienetan

pitin bat danetarik egotea izanik gogoan. Umeentzako gunean, esate baterako, hainbat ekintza erakargarri eta egoki egingo dira, eta gazten gustuko ekintza guztiak euren gunean batuko doguz. Beste gune batzuetan danetarik egongo da: emonaldiak, musika ekitaldiak, ikusgarriak... Gune politak dagoz, zabalak, erosoak... Gure eritxiz, guztientzako beharrizanei begirako eraketea egin da guneei jagokenez.

Zelan sartuko da herrira?

Ahal dan neurrian garraio publikoa erabiltzea eskatzen dogu, autobusak zein trenak maiztasun handiz ibiliko diralako. Bestetik, aparkaleku nagusi bi atonduko dira Bilbondo merkataritza gunean eta Erletxen. Eta handik autobus-anezkak iminiko doguz herriraino helduteko. Errepide nazionala norabide baten itxiko da, autobus pribatuak han aparkatu ahal izateko eta ibiltariak hortik oinez hurreratu daitezan zirkuitura.

***Gerizpetik Eguzkibegire* aukeratu dozue lelotzat, zergaitik?**

Leloa Arkaitz Estiballes ikasle ohiak asmatu dau, eta horretan euskeraren historia eta ikastolen historia bera islatu gura izan ditu. Gure ikastolearen izena erabili dau horretarako.

Eta Piku pertsonaia logotzat hartu dozue; nor da Piku?

Beste ikasle ohi batzuk asmatutako mozoilo koloretsua eta alaia. Txorierritarrek ondo dakizuen legez, galdakoztarroi "mozoiloak" esaten jaku. Aitatu behar da gure ikastolako umeak eta gaztetxoak erraz eta gogoz identifikatzen dirala Pikugaz.

Ibilaldia inoiz baino indartsuago dator musika aldetik.

Pozik gagoz emoitzagaz, gure erabagia izan dalako ikasle ohiek parte hartzea letra eta musikan. Letra Arkaitz Estiballesek idatzi dau, eta musika BIOK taldeak konposatu dau. Behar polita eta txukuna egin dabela uste dogu. Egia da abestia nahiko gogorra dala hasierako zatian, baina gustura geratu gara akabuagaz: barria da, honelako ospakizunetan normalean erabilten ez dan estilokoa.

Gobernu-aldaketea euki dogu oraintsu, zelango eragina izango dau horrek ikastolen egoeran, zeuren ustez?

Horren ganean ezin dogu ezer esan momentu honetan; ez dakigu eraginik izango dauen diru-laguntzetan, horren barririk ez dogulako euki. Bizkaiko Ikastolen Elkartetik gonbidapena luzatu jake agintari guztiei, aurreko edizinoetan egin dan moduan. Eta itxaroten dogu ordezkariak etortzea Eusko Jaurlaritzatik zein Bizkaiko Foru Aldunditik, beti halan egin dabelako eta eurek etortea garrantzi handikoa dala uste dogulako.

> *"Gurea jai hutsa izatea ez dogu gura; jaiegun biribila, osatua, izan daiten ahalegindu gara"*

Egitaraua aretoka

1. Udaletxea: Puzgarriak; 10:00: Goloka kale antzerkia; 11:30: Ibilaldia 09 omenaldia; 12:00: Pencak Silat; 13:00: Mihiluze jokoa; 14:00: Pencak Silat.

2. Iturrondo: Futbol-zelaia; 09:30: Umeentzako tailerrak; 11:30: Erromeria, Aiko taldearekin; 13:30: Four Friends; 17:00: Erromeria, Oxabi taldearekin.

3. Muguru: Ardoen dastatzea; 10:00: Txahal errea eta herri kirolak; 13:00: Bertsolariak; 15:30: Marmara Dixieland Band.

4. Anbulatorioa: 10:30: Andra Mari eta Oinarin dantza taldeak; 12:00: Bertsolariak; 12:30: Andra Mari eta Oinarin dantza taldeak; 15:00: Antzar erakustaldia.

5. Ikastola: Rokodromoa; 09:30: Hasiera-ekitaldia; 10:00: Umeentzako tailerrak; 11:30: Txan magoa; 13:30: Antton Irusta, ipuin kontalaria; 15:30: Txirri, Mirri eta Txiribiton junior.

6. K-2000: Izenaduba basoko pertsonaiak; 11:00: Betizu; 13:00: Euskal kantak; 14:30: Kukubiltxo; 15:30: Anje Duhalde.

7. Elexalde: Globo aerostatikoa; 09:30: Xiba herri kirolak; 11:30: Funkamena, 14:30: Harrobi.

8. Tiro-zelaia: Askagintza; 12:00: Biok; 13:30: Sagarroi; 15:00: Esne Beltza.

"Lotan egon dan gogoa berpiztuz"

Eguzkibegi ikastolea 1966. urtean sortu zan, euskerea eta euskal kultura bultzatu gura zituan lagun-talde baten ahaleginari esker. Gaur egungo eraikina 1978. urtean altxatu eben, eta ordura arte ikasketak beste eraikin baten eta lonjetan be jaso ebezen ikasleek. Ikastoleak irakasle bi eta 35 ikasle zituala emon zituan lehenengo urratsak; gaur egun 682 ikasle eta 55 irakasle ditu, eta 0 urtetik 16 urtera bitarteko ume eta gazteei zuzendutako hezkuntza-eskaintza dau.

Bizkaiko Ikastolen jaialdian batzen dan dirua eraikinaren azpiegiturak erabarritzeko erabiliko dabe. "Ganera, eraikina egin zanean, ez ziran kontuan hartu gaur egunean ezinbestekoak diran egokitzapenak. Gimnasioa, dinamika-gelea eta bestelako espazioak berratondu eta egokitu beharko doguz".

EUSTATen arabera, Galdakaoko herritarren %40a euskalduna da. Gero eta lagun gehiagok daki euskerea, baina beste herrietan gertatzen dan bezala, datu horreek ez dabe islarik kalean. "Ibilaldiak urtean zehar dakarzan ekintzen bidez, lagundu egiten dau euskerearen aldeko kontzientzia sendotzen. Lotan egon dan gogoa berpizten laguntzen dau".

Historia-ibilaldian, Lezamatik

Korrika Kulturalaren barruan ibilaldia antolatu zan Lezamatik, herriko bazterrak eta zubiak ezagutzeko. Ibilaldian bidetik topatutako eraikuntzaren ganeko azalpenak be emon ebezan. Datuak Asier Bidart eta Aintzane Etxebarriak idatzitako *Lezamako Toponimia* liburutik hartu ebezan.

Informazioa: Jabi Agirre

Santa Kurtze ermitea.
1630: Kurtzeko guruztokia; 1667: Kurtzeko guruztoki, etxe eta ospitalea; 1994: Kurtzeko ermitea.
Santa Kurtz ermitara andre-gizon ugari hurbiltzen zan erreguka, euren haurtxoa berbetan hasi eiten. Urruneko herrietatik be bai: Markina, Bermeo, Gernika...
Harri-ormak oztikoez dagoz sendotuta kanpoaldean, eta izkinak harea-harri landuz egin ebezan. Etxaurre nagusia be harlanduzkoa da, eta leihatean kanpai bat dago. Ermitaren sarrerea puntu erdiko harlanduzko arku zabal batetik egiten da; sarrerea burdin hesi eder batek ixten dau. Aurrean arkupe txiki bat dago, eta horren teilatua harlanduzko hiru zutabek eusten dabe. Gurutze latindar formako oinplanoa dau, eta hiru aldare; erdian Andre Maria doloretakoa dago.

Ermitostea.
Orain gitxi bota dabe lurrera. Ermitagaz komunikatzen zan eta mojak bertan bizi ei ziran.

Angetu.
Etxea izen ezbardinakaz ezagutu da: Angetua, Angueta, Anguetu, Anguituco-echebarria, Llodio, Anguitua, Lanquetu, Hugusta eta Anquerri, besteak beste. Gaur egungo etxea Ciriaco Llodiok agindu eban altxetako, eta horixe egin zan XIX. Mendearen azkenaldean eta XX. Mendearen hasiera bitartean, lehengo etxearen aztarnen ganean. Ondorioz, atzealdean dagoan eraikinari "Angetu" esaten jako eta besteari, "Angetubarri".

Angetuko zubia.
Errepublikako gobernuak zubiaren konponketak ordaindu ebazan 1829. urtean (Mogrobejo).

Gurtibiko zubia.
Zubi txikitxo hau oso garrantzitsua izan da Lezama eta Zamudioko herritarren hartuemonetarako; Basabiloltza Lezamako auzokoentzako batez be. Gizarte-harremana bermatzeaz ganera, garaiko industriaren horniketa ahalbidetzen eban. Izan be, Zorrotza Bilboko auzoan burdinaz zamatzen ziran gurdiak handik igarotzen ziran Basabiloltza auzoko Olabarri burdinolara. Zubia erdi desagertuta dago gaur egun, nahiz eta horren arrastoa agerian egon.
Gurtibi zubi barria Foru Aldundiak halan aginduta eraikin zan; harek Arikondo zubia be berregiteko eskatu eban. Lezamako Udalak 352 erreal ordaindu eutsazan beharragaitik eta Zamudiokoak, beste horrenbeste. Horma eta bideak Errepublikeak ordaindu ebazan (Mogrobejo).



Segurtasuna, sare sozialetan

Sare sozialek gero eta oihartzun handiagoa dute interneteko erabiltzaileen artean. Adiskideekin harremanetan egoteko balio dute, eta adiskide berriak egiteko. Hala ere, eztabaida zabaldu da sare horietan jartzen diren datu pertsonalen segurtasunari buruz. Komunikazioaren Teknologiako Institutu Nazionalak eta Datu Pertsonalak Babesteko Espainiako Agentziak txosten bat argitaratu dute eta sare sozialei buruzko informazioa, arriskuak eta aholkuak batzen dira hartan. Txostena euskaraz ere egin dute eta helbide honetan kontsulta daiteke: *www.inteco.es.* Erabiltzaileei zuzendutako aholku batzuk hurrengo lerroetan dituzue.

–Goitizena edo *nick*-a erabiltzea, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren segurtasuna zalantzan ez jartzeko.

–Bideoak edo argazkiak euren perfiletan argitaratzeko orduan arreta berezia izateko, inguruko pertsonen pribatutasuna arriskuan ez jartzeko.

–Sarearen baldintza orokorrak eta pribatutasun politika irakurtzea.

–Profila era egokian konfiguratzea, guztiz publikoa ez izateko.

–Kontaktu moduan aldez aurretik ezagutzen diren pertsonak baino ez onartzea.

–Norberaren datuak ez zabaltzea.

–Erabiltzaileak 14 urte baino gutxiago baditu, gurasoen edo tutoreen baimena behar du.

–Ordenagailuak etxeko eremu komun batean egon behar du, eta interneten erabilerari buruzko arauak ezarri behar dira.

–Guraso-kontrola eta plataformaren kontrol-tresnak aktibatzea, eta guraso edo tutoreen helbide elektronikoa harremanetan jartzeko bigarren helbide moduan ezartzea.

–Eduki-blokeatzailea era egokian instalatuta dagoela ziurtatzea.

–Adingabeen erabiltzaile-profila kontrolatzea, eta interneten ezagututako jendearekin ez dutela gelditu behar azaltzea.

–Adingabeek euren izen osoa erabiltzen ez dutela ziurtatzea, eta euren adinerako gomendatuta dauden orrietara baino ez direla sartzen.

Euskarazko bideoak batzen dituen webgunea

Ikusezazu elkarteak *ikusezazu.com* proiektua jarri zuen martxan orain dela gutxi. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak zabaltzeko webgunea da eta, guztira, 321 bideo jarri dituzte ikusgai. Hala ere, kopuru hori handitzeko asmoa dute sustatzaileek.

Ikusezazu.com film, telesail edo dokumentalak on line eta euskaraz ikusteko dagoen webgune bakarra da. Doako kultura zerbitzua da eta bertako bideoak *on line* ikusi ez ezik deskargatu ere egin daitezke. Gainera, erabiltzaileek ikusitako filmei buruzko iritzia bota dezakete foroetan. Are gehiago, filmak argitaratu ere egin ditzakete: *ikusezazu.com/harremana.*

Beste alde batetik, elkarteak *aitzindari.com* aldizkari birtuala sortu du. Aldizkaria *ikusezazu.com* proiektuaren osagarria da eta euskal kulturari buruzko erreportajeak, biografiak, musika, argazkiak eta abar argitaratzen dituzte han.



Geldoetako bidea, Bitoriano Bolunbururen koplak

Anekdotea, "Indalecio Prieto Geldoetan" izenburuagaz kontatzen dau Juan Luis Goikoetxeak *Euskaldunaren Anekdotak II* argitaratu barri dauan bere liburuan. Maisutasunez beste behin be, eta kasu honetan, ganera, anekdota historikoa eta "musikala" batu, afinatu eta atondu dau.

Testua eta argazkia: Pospolin

(…) Zu, irakurle, Deriotik Geldora bazoaz –Geldo izatez Zamudioko auzotegia da– metalezko seinalea topauko dozu Geldos dinoana. Geldos hori ez da Geldos, da Geldo edo Geldoeta. Oker idatzita dago. Ba, bide hori Deriotik Geldoetara doana Indalecio Prieto sozialisteak egina da, Errepublikan behin baino sarriagotan ministro izanak. Tira, egin egin Prietok…, ulertzen deustazu!

Prieto Bilbon be bizi izan zan; diputadu be aukeratu eben: baita Bilboko "El Liberal" egunkariko buru be. Ba, Prieto ministro izan baino arteko sasoian, gordeta euki eben Geldoetan kartzelara eroan ez egien. Gorde eben lehenengo Txosnan, gero Deurika baserrian eta azkenik Bustamantenean. Geroagoetara, kaminoa egin eutsien geldoztarrei Prieto ezkutauta eukitearrik. (…) Handik honenbeste garrenean, Prieto ministro zala, Bustamante eta Patxo Gangoiti joan ziran Madrilera, eta lortu eben Deriotik Geldoetarako bidea egitea.

Kaminoaren ganean –beste gai batzuk dirala-eta be badaukaz– Bitoriano Bolunburuk bertsoak atara zituan. Harrigarria da Derion, Zamudion, Lezaman, zenbat ordukok dakizan buruz famako kopla horreek:

Atara behar dodaz
bertso bat edo bi
Geldoko karninoan
eskarmentagarri.

Hasi nazen ezkero
esan baragarri
publikatzera noa
Euskal Herriari.

Zamudion jaiota
Zubietan hasi
orain nago eginda
Solondo erosi.

Bertsoko kontuetan
sarri ibillie
Jaungoikoak emonta
badekot grazie.

Ezpada borreu eitten
neure memorie
esplikeu gure neuke
paseu dan guztie.

Hasi Derion eta
Geldoetaraino,
kaminoa marketa
atxinerik dago.

Hamasei etxe dagoz
barriotxu batian
kamiñorik ez dala
legua bat bidian.

Eskatu bihar zala
akordau giñian
bai eta lograu bere
guztion artian.

Guztiok batu eta
trateu eintte dago
Saratzeko trokatik
Kamiñoa ekarteko.

Saratzetik kamiñoa
eiteko ekarri
papelian kostata
ein euskun imini.

Injiñerue bere
señor don Rikardo
haraxe ekarriko deuela
esan eintte dago.

Saratzetik kamiñoa
ez bada egiten
ez etorri gugana
kontuek egiten.

Guztiok egon ginen
papela egiten
Rikardo euki gendun
eskribidu eiten.

Ederto arregleute
joan ginen etxera
denpora handi harik
ein euen atzera.
(----)
Agur eta adios
neure laguneri
kontentu ederrían
holantxe nago ni.

**Liburu egilearen oharra: Alejandro eta Santi Etxebarriak abestu eta papeleratuko koplak dira. Danak ez ditugu ekarri hona. Berez, berrogeirainoko bilduma osotzen dabe.*
Eta Pospolinek dino: hurrengoan musika eta guzti ekarriko doguz, berezko doinu eder horregaz kantau eta zabaldu dagiguzan.

Lezama

Argazkia Lezamako Udaletxearen aurrean egin zan, José María Lejarzari agurra esateko ekitaldian. Data badakizu jakinarazo. Zelan? 944523447 telefono-zenbakira deituz, *aikortxori@aikor.com* helbidera idatziz edo *www.aikor.com > txokoak > Atxinako argazkiak* atalean erantzuna itxiz.

1 Juan Barrena **2** Adrián Arebalo **3** Adrián Zubiaga **4** José Mari Lejarza **5** Ignacio Susunaga **6** José Antonio Mendiguren **7** José Etxandia **8** Germán Eguren **9** Gabriel Aurrekoetxea **10** Tomás Legarreta **11** Rufino Aurre **12** Eugenio Rola **13** Félix Oleaurre **14** Tomás Zubieta **15** Carmelo Zabala **16** José Luis Bilbao **17** Juan Kamiruaga **18** Tomás Lejarza **19** Marcelino Agirre (Matxino) **20** Román Askolizaga **21** Manuel Beain **22** Juan José Zarate **23** Iñaki Aurtenetxe **24** Carmelo Meñika **25** Luciano Hormaetxea **26** Ignacio Astorkiza



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:
Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA
(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Zer sarituko dute Sondikan?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
–Telefonoz: 94 452 34 47
–e-mailez: aikortxori@aikor.com
–Postaz: Aresti kalea 2, 48170, Zamudio

Aurreko erantzuna: Zamudioko liburutegian
Irabazlea: Aitziber Bengoetxea

Bakoren bazterra

Uztartze korapilatsuak

Iñaki Suarez, sumillerra

Kaixo Aikor!-lagunak! Gastronomia jokoaren alderdien artean, nire iritziz, liluragarriena den batez egingo dugu berba oraingo aldi honetan: elkartzeaz. Elkartzeak plateraren eta edariaren arteko harremana adierazi nahi du, ziur aski zuetako askok jakingo duzuenez. Oreka-erlazio bat sortzea da, jaki batez gozatzeko aukerak gehitzeko. Hala ere, ez gara hasiko aipatzen zein diren elkartze bati ekiteko jarraibide orokorrak; beste ikuspuntu bat hautatuko dugu: ezerekin eta inorekin uztartzen zailak diruditen jaki edo platerak, zeinahi dela ere zailtasun horren iturburua: dela aditzera ematen duten nortasuna, dela haien oinarrizko osagaien uztartzeko zailtasuna. Berez, oso ohikoak dira halako jaki edo platerak, baina, konbinatu nahi ditugunean gozamena handitzeko, zaildu egiten dizkigute gauzak. Adibide batzuk emango ditugu:

a) Zainzuriak. Zainzuri berdeak zapore sendoa du, mikaztasuna du nagusi; berdin da su bizian erregosirik badago, gainerrerik edo era errazean prestaturik. Hori gutxi balitz, haren sulfuro kopuruak kontuan hartzeko modukoak dira: horrek are gehiago korapilatzen du konbinatzea; gainera, olio-ozpina bezalako saltsaren bat gehitzen ba-diogu, benetan zaildu egiten da konbinazioa. Nire gomendioa da xerez ardo idor batez edo lager garagardo batez dastatzea, edo, bestela, estra batez, olio-ozpinez aurkeztuz gero.

b) Entsaladak. Entsaladen hiru alderdik zailtzen dute entsaladak edariren batekin ondo uztartzea: barazkiek duten ur neurri altua, barazki askoren zapore mikatzak eta osagaietakoren baten –adibidez, tomatearen– eta, batez ere, maneatzeko erabiltzen den ozpinaren zapore garratzak. Eragozpen horiekin, xerez idorra, manzanilla eta amontilladoa dira ardo egokiak. Garagardoa ere egoki dator kasu honetan.

c) Roquefort eta Cabrales gaztak. Edariekin elkartzean sendotasuna eta zailtasuna bilatzen baditugu, hauekin aurkitu ditugu. Nire gomendioa da intereseko ezkontza bat egitea PX (Pedro Ximenez), Sauternes edo Barsacs familietako ardo gozoekin, behar den besteko ukitu glizerikoa ematen baitiete gustua orekatzeko.

d) Txokolatea. Gastronomo askoren iritziz, mutilzaharra da, baina konbinazio batzuk dasta ditzakegu; nire iritziz, atseginak. Txokolatea mehea bada, garraztasun orekatua eta oroipen zitrikoak dituen moskatel bat etor daiteke ondo. Txokolateak kakao portzentaje handiagoa badu eta mikatzagoa bada, aldaera beltzetako ardo gozoekin elkar dezakegu; esaterako, Jumilla Monastrellekin.

Aurrera ere plater-edari erlazio orekatu gehiagotan pentsatzen jarraituko dugu. On egin!

Etxeko sukaldaritza

Maite Lekerika, sukaldaria

Makarroi zuriak

Osagaiak (lau lagunentzat):
–300 g makarroi
–450 g York pernila
–100 g txanpiñoi
–4 berakatz-atal
–Perrexila
–Ura eta gazta

Prestatzeko erea:

Makarroiak ur ugaritan egosiko doguz, gatza eta olio-zorrotada bategaz (15 minutu). Sarritan eragingo doguz, eta eginda dagozanean, ur hotzagaz garbitu eta gordeko doguz.

Kazola baten olioa iminiko dogu. Berakatzak txikitu eta kazolara botako doguz. Gorritzen hasten diranean honeek botako doguz: txanpiñoiak, makarroiak, gatz apur bat, pernila txikituta eta perrexila. Osagaiak apur bat eragingo doguz, makarroiak berotu arte. Jan baino lehen, 10 minutuan itxiko dogu jalkiten.

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK
New York, New York
Gotzon Garate
Zulo bat uretan
I. Aranbarri
Jantzi beltz bi
J. Penedes
Alea
B. Sarasola

HAUR ETA GAZTE
Burua
P. Añorga
Txarliren kontuak
R.S. Berner
Eguzkiren etxea
F. Juaristi
Sudur puntan mundua
J. Garzia

MUSIKA

The kluba
20 hatz proiekt
I. Plaza & I. Garmendia. Euskal Herriko musika tresnak erabiliz, azken urteetan elkarren arteko musika-esperientzien lan bilduma aurkezten digute.
Tubiog, Trikitixa, alboka, txistua eta txalaparta, egurrezko txalaparta eta plastikozko bidoiak. Horren emaitza, euskal tradizioaren *world music* esperimentala.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

J	G	U	A	U	G	U	A	U	L	Z	U	H
X	F	I	Ñ	H	Y	G	S	X	A	Y	P	Z
M	T	N	E	F	P	M	G	L	U	I	Ñ	A
U	A	R	S	A	D	O	L	U	T	N	Y	O
O	G	Ñ	R	B	M	T	Ñ	X	X	K	I	G
I	Y	J	A	R	D	B	I	T	A	U	F	E
T	E	N	S	K	P	N	L	B	K	B	K	T
L	A	K	E	D	R	K	H	P	U	J	X	X
P	M	S	Ñ	H	S	D	F	Ñ	R	A	E	I
H	Z	A	T	O	B	I	N	A	G	M	J	T
R	P	N	S	A	R	K	O	T	X	E	A	X
I	Z	L	X	O	S	J	T	M	K	D	F	I

A	E	Z	T	N	U	I	D	O	F	U	K	H
U	Z	K	D	J	Ñ	T	A	B	I	A	I	M
B	I	Z	U	E	B	Y	S	A	G	E	N	B
E	A	J	S	I	E	S	F	R	D	P	K	E
O	X	B	T	F	K	H	L	H	D	N	I	P
A	I	Y	M	U	Ñ	E	K	E	A	K	N	O
E	S	K	Ñ	G	R	S	U	O	J	M	E	G
K	Y	J	L	N	P	R	B	P	M	Ñ	O	F
I	J	K	Z	D	M	N	I	L	H	P	Z	L
N	A	X	H	K	I	R	Ñ	T	L	G	N	O
A	X	T	U	X	N	X	U	N	X	R	Y	Ñ
K	F	K	T	R	O	N	P	E	A	T	M	G

Umeakaz berba egiterakoan lexiko berezia erabiltzen dogu. Goiko letra-zopan gai zara **umeakaz erabiltzen diran 7 berba** aurkitzen*. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dagozela.
* *Derioztarren euskara* liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** *81. zenbakiaren erantzuna. Umeen olgetakaz zer ikusirik daben 7 berba.*

Antzerkia eta filmak

Derio
–Monda eta Lironda pailazoak. Ekainaren 14an, 17:00etan, Gurea Aretoan. Tximintx elkarteak antolatuta.
Zamudio
–*Ipuin magikoak*, Bihar Taldearen eskutik. Ekainaren 20an, 12:00etan, liburutegian.
Larrabetzu
–Antzerkia eta abesbatza, Gernikako jubilatuen eskutik. Ekainaren 6an, 17:30ean, Gure Etxean.
–*Nunca ocurre lo que uno espera*, zine-foruma. Ekainaren 18an, 18:00etan, Anguleri Kultura Etxean.

Irteerak

Txorierri
–Araba euskaraz (Oion), ekainaren 21ean. Izena ematea: Sondikan, ekainaren 16ra arte; Zamudion, ekainaren 18ra arte; Larrabetzun: ekainaren 17ra arte.
Sondika
–Urederra, ekainaren 13an. Izena ematea: ekainaren 7ra arte, Gaztetxean.
Zamudio
–Laga. Ekainaren 7an, Txirrin-txirrin elkarteak antolatuta.
–Urkiola. Ekainaren 13an, 09:00etan, Adintsuen Elkarteak antolatuta.
–Isurialdeen banalerroa (Gorbeia). Ekainaren 14an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.
–Urduña. Ekainaren 14an, Txirrin-txirrin elkarteak antolatuta.
–Pasaia-Donostia. Ekainaren 20an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.
–Murgia. Ekainaren 21ean, Txirrin-txirrin elkarteak antolatuta.
–Palentzia, uztailaren 11an eta 12an. Izena ematea: ekainaren 22ra arte.
–Asturias. Ekainaren 27an eta 28an, Txirrin-txirrin elkarteak antolatuta.
Larrabetzu
–Urkiola, ekainaren 13an. Izena ematea: ekainaren 10era arte. Gure Etxeak antolatuta.

Jaiak

Txorierri
–San Juan sua, ekainaren 23an. Derion, erromeria, txokolatada, fanfarrea...; Zamudion: kalejira, txitxi-burruntzia; Lezaman: afari-merienda, animazioa, musika....
Larrabetzu
–San Antonio. Ekainaren 13an, 12:30etik aurrera, Goikoelexalden.

Kirolak

Derio
–Gizonezkoen areto-futbola (hiruko torneoa). Ekainaren 5ean, 19:00etan, kiroldegian. Pozgarri FS taldeak antolatuta.
–Aristides Alonsoren oroimenezko boxeoa. Ekainaren 19an, 21:00etan, frontoian.
–Bizikletan orientazio-lasterketa. Ekainaren 21ean, 10:00etan, frontoian. COBIk antolatuta.
–Taekwondo erakustaldia. Ekainaren 28an, 12:00etan, kiroldegian. Doyan klubaren eskutik.
Zamudio
–Arku-tiroa. Ekainaren 7an, 09:00etan, Errege bidean. Gezi-Bide Derioko klubak antolatuta.
–Futbito Txapelketa. Ekainaren 29tik uztailaren 24ra. Izena ematea: ekainaren 17ra arte.

Lehiaketak

Sondika
–Aire zabaleko pintura lehiaketa. Ekainaren 20an.
Zamudio
–Argazki lehiaketa: Pazko eta San Tomas jaiak. Aurkezteko epea: ekainaren 23ra arte.

Musika

Derio
–Musika Eskolaren emanaldia. Ekainaren 2an, 19:00etan. Institutuan.
–Ikasturte-amaierako kontzertua. Ekainaren 9an, 19:30ean, Gurea Aretoan. Musika Eskolaren eskutik.
–Madrilgo Lavapiés eta Derioko Ipar-Alde abesbatzak. Ekainaren 26an, 20:30ean, Gurea Aretoan.

Tailerrak

Sondika
–Eguzkia hartzen ikasi. Ekainaren 11n, 18:00etan, erabilera anitzeko gelan.

Bestelakoak

Txorierri
Udalekuak. Izena ematea: Loiu, ekainaren 4tik 12ra; Zamudio, ekainaren 19ra arte; Lezama, 12ra arte.
Sondika
–Tailerretan egindako lanen erakusketa. Ekainaren 14an, 11:00tik 14:00etara, Goronda Beko kiroldegian.
–Aste berdea. Ekainaren 5era arte, erakusketa-gelan.
–"Grupo de los 5. Mexico-Euzkadi". Ekainaren 8tik 26ra, erakusketa-gelan.
Derio
–"Hau natura, airea eta lurra" umeentzako ekitaldia. Ekainaren 4an, 16:30ean, Larrabarri baserrian.
–Txakurren erakustaldia. Ekainaren 27an, 17:00etan, frontoian. Maskotas Maider dendaren eskutik.
Lezama
–Aste berdea. Ekainaren 5ean, 18:30etik 20:00etara, Udaletxeko plazan.

Gure gizarte erantzukizunak ingurumena zaintzera behartzen gaitu...



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu lehiaketa aldean hegazkin-motor integratzailetzat eta ultramoderno UAV gaietarako dituzten [illegible] hobetzeko bilatzen ditugun [illegible] ITP homologatik. Ingurunean aldaketa fokatzen integratua jaso dugu Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa para. Ingurumena [illegible] [illegible] [illegible]

SHIADE

Zeure bizitza diseinatu

Logelako altzariak
390€tik aurrera

Pilagarriak
550€tik aurrera

4.000 artikulu orle **merke-merke**

gozatu
dizenuaz eta kalitateaz



Lstiloko altzariem zentroa

www.shiade.com

Loiu
Txorierri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90

Barakaldo
Kanaga, 100-Pab.15
Tel. 94 404 41 41

Galdakao
Labeaga, 1
Tel. 94 457 19 90